


# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 7a / 617. zenbakia



## MUNDUKIDE

Mozambiqueko Marrupa barrutia biziberritzeko, Mundukide gobernuz kanpoko erakundeko ordezkariak hamar urterako joan dira Afrikako hegoaldera

ORAIN ETA HEMEN: TORTURAREN AURKAKO TALDEA/7 • KIROLA: LANDER ERRASTIK, URREA PERTIKAN /17

AZALA: ALEX AZKARATE. ARGAZKIAK: MUNDUKIDE

## SAN VALENTIN EGUNA/12-13

*Eraman plazerra  
zure etxera*


**gelatzo s.l.**  
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

# BITXORI

## Ileapaindegia


Erdiko kale 52  
Tel.: 943 79 88 32

## KALEINKESTA/ Elurtiei aurre egitteko preparaute gauzela pentsetan dozu?



**NATIVIDAD LOBO**  
Langillie

Ez dot uste oso preparaute gauzenik. Karreteretan iguel bai, baiñe kalien ibiltteko arazo haundiek egon zien. Lurre labankorra euen, eta lurrera jausteko peligro haundixe euen.



**PATXI IRIZAR**  
Abadie

Neuk uste dot nahikue preparaute gauzela; Euskadin bai, behintzet. Oñez ibiltteko iguel peligroso samar euen, baiñe bueno... Labankara batzuk danok egin dittugu.



**SEBAS SEGOVIA**  
Langillie

Neuk uste dot ondo preparaute gauzela; gaiñeran azkenengo urtietan oso edur gutxi egin dau. Azken elurtiek sorpresaz harra-pau gau, telebisiñue eskarmentaute euen-eta.



**JOSE LUIS MARTÍNEZ**  
Langillie

Esango neuke asko dramatizau dogule. Pentsetan dot ondo preparaute gauzela, eta lasaittasunez ibiltten bagare, ez dala arazo haundirik egoten. Azken elurtie, baiñe, ez daue iragarri.



**MONTSE ONGALA**  
Langillie


Neuk uste dot ez gauzela oso preparaute. Juen dan eguakotxien, adibidez, ezin izen nitzen lanera juen, portuek itxitte euzen-eta. Esango neuke azken elurtie ez euela iñork espero.



**BEATRIZ MARTÍN PÉREZ**  
Langillie

Ez gaz bat be preparaute. Neuk karreteran egitten dot lan, eta zortzi ordu pasau nittuen Deskargan, ez aurrera eta ez atzera. Aurrekuen exajerau egin euen, eta oinguen?

### TXALOAKETATXISTUAK



GORDE TXARTELA, GALTZEN BA EGUN EDO ALDI BAKOITZEKO 24 ORDAINDU BEHARKO DUZU.

010666140302021927  
R.

### ASTEKODATUA

# 191.990

#### BIDAIARI IBILI ZIREN IAZ HERRI AUTOBUSEAN

191.990 bidaiari ibili ziren iaz herri autobusean: 1 linean 96.241 bidaiari, 2 linean 92.413 bidaiari eta zerbitzu berezietan, 3.336. Egubakoitzetan ibiltzen da jende gehien herri autobusean.

### BESTEKEESANA

**“Olerkien eta olerkari-  
en kontra gaude, gehienak pelma  
hutsak direlako. Horregatik, sasi-  
poesia, poesiaren aurkakoa eta  
astakeriak argitaratzea erabaki  
genuen (...). Letra mordo bat  
idatzita nituen, eta nik neuk  
argitaratzea erabaki nuen; baliabi-  
derik ez nuen, baina fotokopiekin  
ganorazko gauzak ere argitaratu  
daitezkeenez aurrera egin nuen.  
Beste sasi-olerkari batzuekin  
harremanetan jarri ginen, eta orain  
horien lanak ere argitaratzen  
ditugu. Azkenean, nazioarteko sare  
bat antolatuko dugu mundu osoko  
sasi-idazleok (...). Adarra jotzea,  
zirikatzea eta ostikadak ematea  
erabaki dugu; film laburrei eta  
kontzertuei buruz hitz egiten dugu,  
eta sasi-poesiak egiten ditugu”.**

**JOSU ARTEAGA**  
'EUSKALDUNON EGUNKARIA'/03-01-30

### HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



#### Santa Ageda

**G**abon aurretik pentsatu nuen Ikerri esan behar niola otsaileko lehen astea niretzat gordetzeko, Santa Agedaren gainean zerbait idazteko. Baina gero, konturatuta ez neukala esateko larregirik, ez nion ezer adierazi. Eta, hau kasualitate, orain Ikerren deia jaso dut, otsailaren 7rako kolaborazio eske.

Lehendik zertxobait idatzia nuen Eneko Barberena idazle gazteari animoak emateko asmoz, baina aspaldian egunkarietan-eta asko agertu denez (*Goienkaria*-n ere elkarrizketatu zuten duela aste batzuk), interesa galdu du eta hor baztertu dut egina nuen zirriborroa.

Hortaz, halabeharrak Santa Ageda gaitzat hartzea eroan nau. Santaren inguruan ez dut ezer esango, kontu ezagunak dira horiek. Gurago dut geure auzoaz jardutea.

Badira dozena bat urte ARRASATE PRESSerako artikulu bat idatzi nuela. Bi

zaitan ematekoa zena, lehen zatia agertu zen, baina bigarrena ez. Argitaratu ez zen zatian, Arrasateko alkateari auzoan genuen toki itxi baten premiaz berba egiten nion. Holakorik izan ezean (eta gaur ere horren premia dago), "Santagedak" bakarrik bertakoendako izaten

jarraituko zutela aurrerantzean ere esaten nion. Eta abar.

Honela amaitzen nuen idazki hura: "Alkate Jaun Agurgarria, nire eskaera zure belarrietara ozenago irits dadin, ipin iezaiozu doinua

(Santa Agedarena, jakina) ondokoari: *Gure auzoan festa hobeak/ ospatzea nahi dugunez, limosnatxo bat Alkate Jauna/ arren, otoi ta mesedez.*

Gaur egun ere horretan gara. Eta amaitzeko, hauxe: goian esandakoak, aurrekontuak eta eguraldiak ipintzen dituzten mugak kontuan harturik, ahal dena egiten dute jaien antolatzaileek. Hasteko, gaur, bertso afari mundiala. Etorri, ez zaizu garbatuko!

**"Gure auzoan festa hobeak/ ospatzea nahi dugunez, limosnatxo bat Alkate Jauna/ arren, otoi ta mesedez"**



**ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

0102845

**TXALOAK LAUBIDEKO APARKALEKUA** Iaz, atal honetan bertan, Laubideko aparkalekuko txartelak gaztelania hutsean idatzita zeudela eman genuen aditzera. Dirudienez, udaleko arduradunek ARRASATE PRESSko irakurleen kexuei kasu egin diete, eta 2003ko hasiera ezker, euskara hutsean daude aparkalekuko txartelak. Euskararen aldeko beste pauso bat!

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

#### Babes ofizialeko etxebizitzak

Babes ofizialeko etxebizitzetarako azpiegiturak sartzeko lanak egiten hasi dira Cerrajeran.

KULTURA / 15

#### 'Capoeira' ikastaroa

Dantza eta borroka uztartzen dituen *Capoeira* ikastaroa antolatu dute San Viatorren.

ZAHARRAK / 17

#### Pentsioen igoera urria

Erretiratuen eta alargunen pentsioak oso gutxi igo dira urte hauetan. Hori egiaztatu dugu.

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Julen Aranguren

**LEGE-GORDAILUA**  
55-1124/88

**ISSN**  
0214-4654

**TIRADA**  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 7**  
Azkoaga. Iturriotz ..... 943 79 79 99
- ZAPATUA, 8**  
Corcuera. Aranbarri 1. .... 943 79 22 26
- DOMEKA, 9**  
Irizar. Erguin 11. .... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 10**  
Amezua. Santa Marina 32. ... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 11**  
Zabala. Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 12**  
Ruiz. Maala 31. .... 943 79 14 09
- EGUENA, 13**  
Español. Araba etorb. .... 943 79 18 65

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. ... 943 03 53 00  
Iguatorioa. .... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. .... 943 79 39 00  
Emakumeak. .... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea. .... 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria. .... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelenehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. ... egun osoa

- Arrasate**  
Astelenehenetik  
egubakoitzera. .... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. .... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea. .... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. ... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 04 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. .... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>Santa Marinako eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**GESALIBAR AUZOKO JAIK**  
Asteburuan, Gesalibar auzoan Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, auzo afaria, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak eta dantzaldia izango dituzte. Bihar, zapatua, oster, umeendako jolasak, abesbatza, meza eta bestelakoak izango dituzte.

**IRAKEN GAINEKO BERBALDIA**  
Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle eta Causa Arabe taldeko kide Carlos Bareak Iraken gaineko berbaldia egingo du eguaztenean, hilaren 12an, Monterronen, 19:00etan. Komite Internazionalistek antolatu dute.

**GERNIKATIK ARRASATERA**  
Domekan, hilaren 9an, *Gernikatik Arrasatera* ekimenaren aurkezpen ekitaldia egingo dute Herriko Plazan. Ekitaldia 12:30ean hasiko da.

**BEDOÑABEREN INAUGURAZIOA**  
Gaur, egubakoitza, San Andresko Herri eskolako Bedoñabe eraikina inauguratuko dute. Goizean goizetik izango dituzte ekitaldiak. 16:30ean, berriz, eskolako ateak zabalduko dituzte eta lantegiak eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

**AEDrenAGENDA**

**NEGUKO OLINPIADAK**  
Otsailaren 22an, Neguko Olinpiadak egingo dituzte Arrasaten. Goizetik iluntzera arte, herri kirolak, *Wing Tsun, Tai Chi*, Aerobic, eskalada, herri bazkaria eta DJ jaia egongo dira, besteak beste. AEDk eta Topagunak antolatu dute eta matrikula egiteko 10 euro ordaindu beharko da. Izena eman AEDn lehenbailehen.


**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.  
**Eroskittik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**


**San Josepeko harrobia ixteko hitzarmena**

Ingurumenean eragin nabarmena egiten duela-eta, harrobia ixteko hitzarmena sinatzekotan egon ziren Udala eta San Josepeko harrobiaren arduradunak. Ikerketa batek erakutsi zuen San Josepekoak ingurumenean zuen eragina Kanpanzarkoa eta Kobatekoa baino handiagoa zela.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Mormoxetia"*



Zurrumurrua, esamesa, marmarra, txutxu-mutxua.  
—Zenbait petralek mormoxetia besteik eztauka.

GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Azterketa garaian, zer jan behar dugu?**

Arrasate Irratiko dietistak, Amaia Díaz de Monasterioguren, azterketa garaian zer eta noiz jan azaldu digu. Amaia aholkuak zapatuan eta domekan entzun ahal izango dituzte, 11:00etan. Horrez gainera, asteburuko gainbegiratuan, Jokin Zaitegi Itzulpen Sariketa irabazi duen Urtzi Urrutikoetxearekin izandako elkarrizketa eta Korrika Kulturalaren antolaitzaile Itxaro Artolarekin izandako solasaldia entzun ahal izango dituzte.



**Gerra hotsak Arrasate Irratian**

Iraken aurkako gerra hotsak gertu daudela-eta, horretaz gehiago jakiteko asmoz, lagun bi gonbidatuko ditugu Arrasate Irratira datorren eguaztenean. Batetik, Amaia Arribabalaga, Komite Internazionalistetako partaidea eta gurean nazioarteko gaitako aditua dena; eta, bestetik, AEBetako ikuspuntua jasoguran, telefonoz beste aldean, Bostonen bizi den Galder Cristobal arrasatearra izango dugu. Eguaztenean, 09:30ean.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Zapatua, 1	<b>0 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Astelena, 3	<b>12 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>263 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 29	6 °C 5 °C 59,3 l/m²
Eguena, 30	7 °C 2 °C 60,1 l/m²
Egubakoitza, 31	3 °C 3 °C 18,4 l/m²
Zapatua, 1	5 °C 0 °C 28,2 l/m²
Domeka, 2	8 °C 3 °C 27,1 l/m²
Astelena, 3	12 °C 6 °C 37,3 l/m²
Martitena, 4	9 °C 9 °C 32,6 l/m²

Begarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efe merideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**  
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**  
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**  
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta
- ZAPATUA**  
11:00 Asteko elkarrizketak: Urtzi Urrutikoetxea, Itxaro Artola, Amaia Díaz de Monasterioguren...
- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Ogi mamiak dastatzeko aukera domekan

Corazon de Encina kultura taldeak ogi mamiak gertatu zituen domekan herritarrendako. Extremaduran ohitura handiko jaki dira ogi mamiak. Egun hori orain dela hamai-ka urte hasi ziren prestatzen, eta Arrasatez gain, inguruko herrietan ere ospatu izan dute. Iaz, adibidez, Antzuolan izan ziren. Ramon Hidalgo elkarteko presidentek adierazi zuenez, ezin dira kexatu, urte batetik bestera jende gehiago gerturatzen delako. Domekan ere jende dezente gerturatu zen ogi mamiak jatera, nahiz eta eguraldiak ez zuen askorik lagundu.

### Urkuluko urtegia, bete-beteta

Aretxabaletako Urkuluko urtegia bete-beteta dago. Azken asteotan egin duen elur eta eurik goraino bete du Aretxabaletako urtegia, eta eguazten eguerdian, urtegiak bi uhateetako bat ireki zuten. Urtegia gainezka zegoen, eta apur bat uzteko asmoz, bi uhateetako bat ia hamar orduz irekitzea erabaki zuten. Uhatea eguerdian ireki zuten, eta gaueko hamarrak arte egon zen irekita. Horri esker, Urkuluko ur maila metro bat jaistera lortu zuten, segurtasun neurri moduan.

### Arrasateko biztanleriak, behera

Arrasaten biztanleriak behera egin du, nahiz eta ez den askorik jaitsi. Iaz baino 253 bizilagun gutxiago daude herrian: 23.114 bizilagun, hain zuzen. Hala ere, jaiotzek gora egin zutela azpimarratu behar da: iaz, 172 ume jaio ziren Arrasaten, orain dela bi urte baino 30 ume gehiago. Horrenbestez, jaiotze tasa %21 hazi da. Beste muturrean, heriotzei dagokienez, orain dela bi urte baino 14 lagun gutxiago hil ziren iaz. Horrez gain, 529 lagun herritik joan ziren, orain dela bi urte baino 79 gutxiago.



### Arrasate, zuri-zuri

Egubakoitz goizean zurituta esnatu zen Arrasate. Gauean egin zuen elurak zurituta utzi zituen Arrasate eta inguruko bazterrak. Kanpanzarko, Arlabango eta Gatzagako portuak itxita egon ziren, eta askok ezin izan zuten lanera joan. Argazkia Udalarako bidetik dago aterata, zapatu goizean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Oihartzuna, Marten

Aste honetan jakin dugu Marteko krater bati Galdakao izena jarri diotela. A ze marka, pozik egongo dira! *Operación Triunfo*-ko Ainhoa Cantalapedra burura etorri zait. Egia esanda, Galdakao ez da orain arte herri ezaguna izan, baina badirudi ezaguna egiten hasi zaigula.

Duela gutxi, Arnaldo Otegi esan zuen Ainhoak

*Operación Triunfo* irabaztea Madrilgo gobernuren triki-mailua zela, euskaldunok *Eurovision*-en Espainiako abestia animatu genezan. Logika horri jarraituz, baliteke, AEBk eta NASAk Euskal Herriari keinu bat egin gura izatea, Marteko krater bati izen euskalduna jarri baitiote. Halako kontuek ez didate asko axola eta, gainera, ez naiz aditua.

Bestalde, bitxia da Arrasateri, duen oihartzuna kontutan hartuta, edo esaterako Oñatiri, hainbeste herrirekin anaikideta dagoena, halako aukerarik eman ez izana. Hala ere, nire uste apalean, hobeto egingo genuke, Arrasate beste modu batzuetan ezagutzera emango bagenu. Horra hor, Sahararen aldeko kanpaina edo Mundukidek Mozanbiken dituen ekimenak. Hemengo dirua eta ekimena horretarako erabil dezagun!

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### ARRASATEKO GAZTEEK PILOTA TOPAKETA IZAN ZUTEN MARTITZEN GOIZEAN

Martitzen goizean, Arrasateko neska-mutikoen pilota topaketaz gozatzeko aukera izan zuten. Topaketa horren helburuak pilota sustatu, ikasleen artean harremana indartu eta goiz ederra pasatzea ziren. Bada, helburuak aise bete zituzten, topaketan parte hartu zuten 165 neska-mutikoen ondo bai-

no hobeto pasatu zutelako. Goizeko bederatzietan hasita, Arrasateko ikastetxeetako neska-mutikoak Uarkapeko, Musakolako eta Iturripeko pilotalekuan ibili ziren. Hamabiak aldera Uarkapen elkartu ziren guztiak, finalak jokatzeko. Ea datorren urtean ere animatzen diren neska-mutikook. /X.U.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

## ELKARRIZKETA

BEÑAT ARTZADUN/BORONDATEZKO LANKIDEA

# “Marrupari laguntzeko asmoa badugu, onartu behar dugu han 10 urterako lana badugula”

ARRASATE IRRATIA

**B**eñat Artzadun da oraingo asteko gure berba-laguna. Lehenagotik ere sarri egon izan da geurean, gobernuz kanpoko Harreman erakundeko kide gisa; hortaz, ezaguna egingo zaizue. Oraingo honetan, Mozambikeko kontuak ekarri dizkigu Beñatek. Urtebete egin du han, Mundukidek abiarazitako proiektu baten lanean, eta egun batzuetan hemen izan eta gero, beste urtebeterako joan da Afrika hegoaldera.

**Mozambikeko zein aldetan zaudete? Eta zer egin gura duzue?**

Mozambikeko iparraldean gaude; Tanzaniarekin eta Malawiarekin muga egiten duen Niassako probintzian; eta horren barruan, Marrupako barrutian gaude. Datozen 8-10 urteotarako egitasmo bat dugu harako. Eta niri egokitu zait lehenengo bi urteotan egitasmoa abian ipintzea, plana hastea. Dagoeneko urtebete egin dut; hortaz, orain, beste urtebete egingo dut han.

**Eta zein da proiektuaren helburua?**

Programak funtsezko bizpahiru ideia ditu. Mundukidek hasieratik erabaki zuen leku konkretu baten epe ertain edo luze-rako programa bat egin gura zuela; betiere, gure indarren neurri-ara dagoen gune baten. Kasu honetan, barruti baten gabiltza lanean, eta 8-10 urteko epea ezarri dugu.

Marko horren barruan, egin beharreko guztia egin gura dugu: hezkuntza, osasuna, enpresak, nekazaritza, azpiegiturak... Dena.

Bi urteotarako dudak egitekoa da testuingurua hobeto ulertu, ildo bakoitzean jarrai genezakeen bidea edo estrategia zehaztu, norekin lan egingo dugun zehaztuz joan...

**Laburbilduta, hango egoeraz jabetu?**

Bai, baina gauzak eginaz jabetu. Zerbaitekin jabetzeko modua da gauzak egiten hastea; hortaz, urte hauetan zera egiten gabiltza: gauza konkretuak egiten hasi eta, ekintza horiek ematen diguten esperientziekin, ildo bakoitzean zein bide jarraituko dugun definitu.

**Eta zelan egiten duzue lan Marrupan?**

Barrutia ez da herrixka baten modukoa, azalera handikoa da. Gutxi gorabehera, Marrupak Euskal Herriaren azalera bera du; biztanleak, herriz, askoz gutxiago dira: 44.000 lagun inguru. Barruti haren barruan auzoak eta



MUNDUKIDE

*“Egin beharreko guztia egin gura dugu: hezkuntza, osasuna, enpresak, nekazaritza...”*

herriak daude. Horrela, gure asmoa da barruti hura guztia abian jartzea. Horretarako, errepideak behar dira, irakasle hobeak, osasun zerbitzu hobeak, nekazaritza probetxu hobe emango dion nekazaritza mota... Hamai-ka gauza. Eta, ekimen horietan guztietan bidea egiten gabiltza. 2002an, bidea dezente urratu genuen arlo batzuetan. Eta 2003an, beste pare bat edo hiru arlo abian ipiniko ditugu.

**Zelakoa da Mozambike?**

Mozambikeraren gainean ezin dut gauza askorik esan, Marrupan bakarrik egon naiz-eta. Marrupa zelakoa den? Geografikoki mendixkak dira, basoa da ia guztia,

*“Zelanbait esateko, jendea pobre izaten aspertuta dago; badu gogoia gauzak aldatzeko”*

baso lehor samarra, egia esatearren. Urtean lauzpabost hilabete euria egiten du eta gainerako hilabeteetan ez du euririk egiten. Azarotik otsaila-martxora bitartean egiten du euria. Inguru polita da, egoteko leku ona da: ez da hotzegia ezta beroegia ere. Jendeari dagokionez, bazter guztietan moduan: orokorrean, jendea atsegina da, eta, leku guztietan moduan, denetarik dago. Hori bai, badago lanerako gogodun eta borondatedun jendea. Jendeak desio handia du bizimodua hobetzeko. Zelanbait esatearren, jendea pobre izaten aspertuta dago; hau da, badu gogoia gauzak aldatzeko.

*“Orain arte, diru guzti-guztia kooperatibetatik dator, hemengo kooperatibetatik”*

**Zelan eta norekin bizi zara han?**

Etxe baten bizi naiz. Gaur egun, hiru lankide gabiltza proiektu horrekin. Eta etxe bitan gaude hirurok, Marrupan.

**Behar asko dituztela esan duzue...**

Beharrak mila dira. Ez da erraza Marrupako bizimodua, nahikoa latza da. Denetarik falta da. Jendeak jateko badu; azken baten, baserritarrak dira, eta, gutxi edo asko, denek dute jateko zerbait. Oraintxe dira hilabeterik gogorrenak, iazko uzta amaitzearen dago-eta. Baina janaria baino gehiago, beste guztia falta da: jantziak erosteko dirua, zapatak erosteko dirua,

umeen eskolarako liburuak erosteko dirua, ohea edukitzeko, irratia bat edukitzeko... Errepideak falta dira, eskola hobeak falta dira, ur garbia falta da, argindarra falta da... Lan handia dago han egiteko.

**Baina, badute ilusioa, ezta?**

Bai. Izan ere, jendea aspertuta dago pobre izaten.

**Eta zelan egiten diezue aurre behar horiei?**

Kasuan-kasuan, modu diferentean egiten da. Adibidez, iaz, helduak alfabetatzeko eredu indartzen ibili gara; nekazariekin beste plangintza bat dugu. Errepide bat ere egin dugu 2002an. Edozelan ere, egin dugun guztia tokian tokiko buruzagiekin berba egin eta beharrak adostu eta gero egin dugu. Horrela, errepide egiteko hango gobernuarekin berba egin eta hitzarmena sinatu genuen; era berean, ez genuen kanpoko enpresa bat ekarri gura errepide egiteko. Baina han ez zegoen horrelako enpresarik. Hortaz, errepide bera egiteaz gainera, errepideak egin ditzakeen enpresa bat ere sortu genuen.

**Proiektu horiek guztiak egiteko dirua behar da. Nondik lortu duzue?**

Orain arte, diru guzti-guztia kooperatibetatik dator, hemengo kooperatibetatik. Horren harira, jendeak ondo ulertu behar du honakoa: inork ezin du esan Marrupako edo beste edonongo jendeari pobrezia latz egoera hartatik irteten lagundu gura diola sei hilabetean, ez urtebetean ezta hiru urtean ere. Hartu adibide moduan Arrasaten egiten dabiltzan edozein obra. Etxebizitzak egiteko, adibidez, egin behar direla iragartzen dutenetik egiten dituzten arte urteak pasatzen dira. Eta hori hemen gertatzen bada, han gehiago. Marrupan ospitale bat egin behar dugula pentsatzen hasten garenetik guztia egin arte urteak behar dira. Horrela, Marrupako jendeari egoera horretatik irteten laguntzeko asmoa sendoa badugu, hasieratik onartu behar dugu han, gutxienez, hamar urteotarako bagaudela. Eta, jakina, dirua behar da; eta dezente, gainera.

**Berriro bueltatzean zertan ertsiko diozue?**

Nekazarien plana abian jartzen bukatuko dugu; era berean, 2003rako plangintza definituko dugu eta enpresa berriak edo industria txikitxoak sortzeko formazioa ere eman gura dugu apur-urtean edo maiatzean. Hain zuzen ere, urtarrilean lankide bi gertatu dira han, eta horretarako lan-erak hartzen ibili dira.

GIZARTEA/ Torturaren Aurkako Taldearen prentsaurrekoa

# Torturarekin lotutako iazko datuak kaleratu dituzte

UBANE MADERA

Torturaren kontrako taldea eratzten dabiltza gure ibarrean. Prentsaurrekoa eman zuten martitzenean taldeko kide batzuek, eta, besteak beste, torturaren gaineko datu kezagarriak kaleratu zituzten. 2002ko balantzea egin zuten.

Torturaren Aurkako Taldeak emandako datuen arabera, "tortura desagertu beharrean, areagotuz doa urtetik urtera". Esan zuten 2002an 127 tortura kasu salatu direla, 2001ean baino 32 gehiago. "Horietatik, 68 Guardia Zibilaren eskuetan gertatu dira; 36, Ertzaintzaren eskuetan; eta 23, Polizia Nazionalaren eskuetan". Gaineratu zuten Ertzaintzak jaso dituen salaketak ere areagotuz doazela, eta, gainera, "tortura psikologikotik tortura fisikoaren aplikaziora pausoa eman dutela". Horrez gain, adierazi zuten nahiz eta tortura kasu horiek salatuta egon, salaketak ez duela ezertarako balio izaten. Artxibatu egiten dutela kasua edo, bestela, ustez tortura egin duten polizia agenteak mailaz igotzen dituztela, ordainsari moduan. TATen esanetan, hori bera egin zuten Kepa Urrea pre-soak salatutako torturekin.

## TORTURAREKIN BUKATZEKO

Torturarekin bukatzeko, bedera-



Leire Lardizabal, Joseba Garitaonandia eta Idoia Elkoro, prentsaurrekoan.

tzi puntuko proposamena egin du TATEk: atxilotutakoari ezartzen zaion bakartze egoera, atxilotetaren iraupena, atxilotutakoari dagozkion eskubideen murriztea, *habeas corpus* delakoaren benetako erabilera, torturaren bidez lortutako aitortzak, abokatua aukeratzeko debekua, egoitza polizia-letan bideo kamerak ipintzeko eskaera... eta antzeko gaiak jorrazten dituzte. Horren harira, puntu horiek betetzearen aldeko sinadurak batzen hasiko dira. 70.000 sinadura batu gura dituzte 2003an.

Bestalde, bihar, zapatua, mobilizazioak iragarri dituzte 19:00etan.

## TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Horren harira, Torturaren Aurkako Eguna antolatu dute Euskal Herrian, eta Arrasaten ere bat egingo dute. Otsailaren 13an izango da. Egunean bertan mobilizazioak egingo dituzte ikastetxeetan, eta 19:00etan mobilizazioak deitu dituzte herri guztietan. Horrez gain, zapatuan, hilaren 15ean, eskualdeko manifestazioa egingo dute, Bergaran, 19:00etan.

ZERBITZUAK/ Herri autobusaren 2002ko emaitzak

# Emaitza onak lortu ditu berriro ere herri autobusak

Leintz Garraioak enpresa oso pozik dago autobus urbanoak 2002an lortu dituen emaitza onekin. Udalean aurkeztutako txosten baten arabera, iaz, 191.990 bidaiari ibili ziren autobusean; batez beste, 640 bidaiari egune-

ko. Urbanoaren lineei begiratuz gero, 1 linean 96.241 bidaiari (%51,01) ibili ziren eta 2 linean, berriz, 92.413 bidaiari (%48,99).

Txartelen gainean, berriz, datuek erakusten dute txartel arrunta erabiltzen dela gehien:

%59. Eta bono-busa, %41. Horren harira, Gizarte Zerbitzuek diruz lagundutako bono-busa uste baino dezente gutxiago erabili dela ere erakusten dute datuek.

Egunak kontuan hartuta, egubakoitzetan erabiltzen da gehien autobus urbanoa; hilabeteen arabera, berriz, urria eta azaroa dira hilabeterik oparoenak. Eta geltokiei dagokienez, bi lineetan honakoak erabiltzen dira gehien: Eroski, San Frantzisko, San Andres, Garibai, Joan Bengoa eta Musakola.

## ONDORIOAK

Datu horiek guztiak ikusi eta gero, Leintz Garraioak enpresak zera ondorioztatu du, besteak beste: Arrasaten urbanoaren beharra bazegoela eta aurrera begira zerbitzua hobetzea lortu gura dutela. Horretarako, euren proposamena da autobusa orduro pasatu beharrean, ordu erdiro pasatzea.



ARRASATE PRESS

Batez beste, 640 bidaiari ibili da egunero Arrasateko urbanoan.

## LABUR

### Zabaletako zubia botatzeko lanak atzeratu egin dira berriro ere

Aurreikuspenen arabera, oraingo asteko astelehenean hasi behar ziren Zabaletako zubia botatzen, baina, euriak eta elurak ekarritako ur handiak direla-eta, erreka dezente hazi da, eta, horren ondorioz, langileek ezin izan dute lanik egin. Orain, eguraldia hobetzeko zain egongo dira lanak berriro hasteko. Behin lanak hasita, hiru hilabeteko epea zehaztu dute guztia bukatzeko. Zubi zaharra botako dute eta berria eraikitzen bukatu; izan ere, zubi horren zati bat eginda dago. Bitartean, ibilgailuak orain doazen lekutik pasatzen segituko dute, eginda dagoen zubi berriaren zatitik. Zubi berria bukatzen dutenean, denera, bost erreki izango ditu.

### Arrasateko ordezkariak Bartzelonan izango da, Gaudi moda aretoan

Asteburuan, diseinatzaile berriek hitzordua dute Bartzelonako Gaudi moda aretoan. Horien artean, Arrasateko ordezkariak ere izango da; izan ere, Gorka ile apaindegikoei hartuko dute parte ekitaldian. Ite apaindegiko Gorka Uriarte atzo joan zen Bartzelonara, eta astelehenera arte izango da han. Edozelan ere, ez da joaten den lehenengo aldia. Iaz ere izan zen Gaudi aretoan, eta, horrez gain, urtero joan ohi da Londresera. Gainera, laster, New Yorkera joateko asmoa dauka, han anaia dauka-eta; hura ere ile-apaintzailea.

### Bi aste barru greba egingo dute eskualde ospitaleko erizainek

Bi aste barruko martitzenean eta eguaztenean (hilak 18 eta 19), greba egingo dute Arrasateko eskualde ospitaleko erizainek. Erizainen SATSE sindikatuak deitu du protesta ekimena, erizainen lanpostuaren balorazioa aztertzeko negoziazioa has dadin. Arrasateko ospitalean 80 erizain daude, baina, SATSEk salatu duenez, 10ek baino ezin izango dute greban parte hartu, nahiz eta %75 baino gehiago grebaren alde egon. Kontua da gainerakoek gutxieneko zerbitzuak bete behar dituztela.



### Zuhaitz bat bota dute Musakolan

Joan den domekan, hilaren 2an, zuhaitz bat bota zuten Musakolako Nao Santiago kalean. Kontua da auzotarren batek suhiltzailei deitu ziela zuhaitz bat okertuta zegoela-eta. Haiek etorri, arriskutsua zela ikusi, eta zuhaitza moztea erabaki zuten. Zipres motakoa zen, eta 10 metro pasatxo luze. Orain, geratu den zuhaitz zatia ere kendu egingo dute eta berorren sustraiak sikatu arte itxarongo dute. Hala, behin sustraiak sikatu eta gero, errazagoa izango da haiek kendu eta zuhaitz berria sartzea. Izan ere, hori egingo du Udalak, beste zuhaitz bat sartu leku berean.

HIRIGINTZA/ Babes ofizialeko etxebizitzak


# Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko aurreneko pausoa

UBANE MADERA

Cerrajeran egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzak egiteko aurreneko lanak egiten hasi dira. Hain zuzen ere, etxebizitza horietarako azpiegiturak desbideratuko dituzte. Bi hilabete eta erdi dute lanok bukatzeko.

INEMen ondoan zegoen aparkalekua ezin da erabili dagoeneko. Izan ere, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar dituzte eremu horretan, eta etxebizitza horien urbanizazioaren lehenengo zatia (oinarrizkoena) egiten hasi dira. Hain zuzen ere, etxebizitzetarako azpiegiturak desbideratuko dituzte orain: ura, argindarra, telefono hariak... Horrela, gero, etxeak egiten hasten direnean, guzti hori eginda izango dute. Bi hilabete eta erdiko epea dute lanok bukatzeko.

Bien bitartean, Udalak beste eremu bat ipini du behin-behinerako, ibilgailuak aparkatzeko. Errepidearen beste aldean dago, enpresak dauden lekuan. Eta, gero, urbanizazio lanen lehenengo zatiko lanak bukatzen



AITOR URIZAR

Babes ofizialeko etxebizitzetarako oinarrizko urbanizazio lanak egingo dituzte.

dituztenean, ahal den neurrian, behintzat, aparkalekua egokitu dute berriro ere lehenengo lekuan. Horrez gain, Arrasate Musikalen ondoan, gaur egun hondakin pilaketak dauden lekuan, beste gune bat egokitzen ahaleginduko dira. Hori ere aparkalekuetarako.

## DATA IPINI BARIK

Edozelan ere, ez dute zehaztu noiz hasiko diren eraikitzen babes ofizialeko etxebizitzak. Jakinarazi digutenez, orain, Eusko Jaurlaritzan proiektua idazten ari dira. Behin proiektua idatzita, lanak adjudikatu dituzte, eta gero hasiko dira etxeak eraikitzen.

# PSE-EEK Ezker Batua kritikatu du

UBANE MADERA

Joan den asteko osoko bilkura dela-eta, PSE-EEK EBko zinegotziaren jarrera kritikatu du ohar baten bitartez. Hain zuzen ere, PSE-EEK aurkeztutako bi mozioak direla-eta kritikatu dute Joseba Ugaldere jarrera. Gogor erantzun du hark.

*Prestige*-rekin lotutako mozio bat eta Irakekin lotutako beste bat aurkeztu zituen alderdi sozialistak. Eta, bi mozioei ezetza eman zien Ezker Batuko Joseba Ugaldere zinegotziak. Hori dela-eta, PSE-EEK prentsari bidalitako ohar batean dio, besteak beste, EB eta gainerako talde politiko nazionalistak zinikoak direla, *Prestige*-ren hondamendiak Euskadin izango dituen ondorioen berri izateko PSEk egindako proposamena baztertu zutelako. Proposamen horretan zenbait eskaera egin zioten Eusko Jaurlaritzari, besteak beste, kostaldea garbitzea euskaldunoi zenbat kostatuko zaigun jakitea eta bi gobernuak erantzukizun politikoak zein ekonomikoak ebaluatzeko eta garbitzeko talde mistoa era dezaten eskatzea.

Iraken kontrako gerra dela-eta aurkeztutako mozioarekin lotuta, berriz, PSE-EEK adierazi du Ezker Batuak "Euskadin jasaten

dugun indarkeria, hilketak eta estortsioa gaitzesten duen talde politikoa babeste duela", baina, era berean, kanpoko lurraldeetako askatasunaren defendatzaile sutsua dela.

## JOSEBA UGALDEREN ERANTZUNA

Joseba Ugaldere Arrasate Irratiari egindako adierazpenetan, berriz, esan du, oro har, PSE-EEren gutuna astakeria hutsa dela. Gaineratu du, hemendik aurrera PSE-EEK bidaltzen dituen ohar horiek erantzuten hasteko asmoa dutela, Arrasateko herritarrek PSE-EE zertan dabilen jakin dezaten.

*Prestige*-ren mozioa dela-eta, adierazi du Eusko Jaurlaritzak eman duela orain arte gastatutakoaren berri, eta gogorarazi du, diru hori gastatzea ez dagokiola jaurlaritzari, ez du-eta horretarako kompetentziarik. Talde mistoa sortzearen gainean, berriz, esan du *Prestige*-ren kasuan argi dagoela erantzukizuna Galiziako eta Espainiako gobernuena dela, hortaz, ez dagoela zertan talde mistorik sortu behar.


Iraken mozioa dela-eta, berriz, EBk esan zuen, besteak beste, mozioko hirugarren puntua alderdi guztiek onartu zutela, Batasuna barne; eta puntu horretan bakearen aldeko eta elkarrizketaren aldeko bidea defendatzen dutela.



## Baraualdia, Bautista Barandallaren egoera salatzen

Berrogei bat lagun batu ziren joan den asteburuan Arrasateko Udaletxean Bautista Barandallaren egoera salatzen. Asteburu osoko baraualdia egin zuten, ibarreko Etxerat elkarteak deituta. Baraualdiaz gain, salaketa ekitaldiak ere antolatuta zituzten eta, zapatuan, adibidez, *Barandalla Etxia* taldeko kideak izan zituzten bisitan. Besteak beste, talde horrek Barandallaren egoera larriaren berri eman zien. Horrekin batera, "alderdi politikoen utzikeria" ere salatu zuten eta legeak esaten duena betetzeko exijitu zuten, hain zuzen ere, 92. artikulua bete dezatela.

Oraingo astean bertan beste ebakuntza bat egin diote Bautista Barandalla preso nafarrari. Heste lodiko zati bat kendu behar diote, hesteari kalte egiten dion gaixotasun sendaezina dauka-eta.



## Asteburuan, jaiak izango dira Gesalibarren

Santa Ageda zaindariaren omenez jaiak izango dira asteburuan Gesalibarren. Egubakoitzean, 19:00etan, etxafuegoak botako dituzte; eta 20:30ean, auzo afaria egingo dute Jentil Olan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariek lagunduta; gero, dantzaldia izango da, Txinpartarekin. Zapatuan, 11:30ean, Txatxilipurdik antolatuta gazteendako jolasak izango dira; 12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza; eta 14:30ean, auzoko abesbatzak Santa Agedaren omenez kantatuko du. 22:30ean, dantzaldia izango da. Bukatzeko, domekan, meza nagusia izango da, 12:00etan.





## SANTA AGEDA EGUNA ARRASATEN

**M**artitzenean, eguraldi txarra egin zuen arren, Santa Ageda eskean irten ziren. Goizeko zortzietan 60 bat lagun elkartu ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian, meza entzuteko.

Horren ondoren, talde bi egin zituzten: batzuk Bedoña aldera joan ziren eta beste batzuk, Musakolara. Bazkaltzeko Leintze elkartearekin elkartu ziren. Iluntzean, berri, udaletxean egin zuten agurra.




## SARI EDERRA!

**H**aimar Gorrotxategi izan zen *Euskal Herria aurrera!* zozketaren irabazlea. Hasiera baten zozketako saria jaki ederrak izan behar ziren arren, azkenean, diru-saria eman zioten. Sari ederra!



## LUDOTEKAK 10 URTE

**U**rtarrilaren 12an, Santa Marinako ludotekaren X. urteurren jaia ospatu zuten. Txokolate-jana, ikuskizunak, eta bestelakoak izan ziren. Ume asko hurreratu ziren Santa Marinako ludotekako urteurren jaira; izan ere, egunero ez dira 10 urte betetzen.



## Landu zure barne energia eta lortu gorputzaren, espirituaren eta buruaren arteko oreka

### "TAI CHI"

Tai Chi-ren oinarria mugimendu geldoen segidan datza. Keinuen harmonia eta gorputzaren arintasuna garatzen dira, etengabe.

### GIMNASIA TXINATARRA

Osasun fisiko eta mentalerako gimnasia energetikoa. Akupuntura txinatarraren printzipioetan oinarrituta dago. Ariketa sinpleen bitartez, meridianoetatik energia bideratzen da.

#### Tai Chi eta Gimnasia Txinatarraren onurak

- Nerbio sistema erregulatzen du (antsietatea, depresioa...), oreka erregulatzen du, erlaxatzen laguntzen du eta loaren erritmoa berreskuratzeko onurak ematen ditu eta estresa kentzen du.

- Gorputzaren jarrera zuzentzen du, eta buru-argitasuna eta lasaitasuna errekuperatzen dira.

- Zirkulazioa hobetzen du, muskuluak eta artikulazioak gogortu eta tonifikatzen ditu eta itxura fisiko hobea lortzen da.

### DEFENTSA PERTSONALA

Autodefentsa sistema. Monje taoisten borroka-artetik dator.

- Taldekako lana
- Gorputza indartzea

**Talde mugatuak. Astelehenetik egubakoitzera eta zapatuetan. Adin guztietarako aproposa.**

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA  
Bixente Ferrer 1  
Tel.: 943 79 52 17

LIRAIN

## AGR Arrasatek igoera faserako sailkatzeko beste pauso bat eman du

XABIER URZELAI

Senior mailako talde nagusiak 26-24 irabazi zion Usurbil taldeari. Norgehiagoka gogorra izan zen, lehia handikoa, baina azkenean, Bernardo Balerdiren mutilak gol biko aldearekin nagusitu ziren. Arrasatearrak hirugarren daude, eta igoera faserako sailkatzeko aukera dute.

Joan den astean, AGR Arrasate eta Usurbil taldeek igoera faserako sailkatzeko aukerarekin jarraitzeko norgehiagoka garrantzitsua jokatu zuten. Sailkapenari begira, usurbildarrak laugarrenak ziren eta arrasatearrak, hirugarrenak. Partidua irabazten zuenak igoera faserako sailkatzeko aukerarekin jarraituko zuten. Galtzen zuenak, berriz, atzerapausoa egin eta ia-ia aukera barik geratuko zatekeen. Talde biek oso argi zeukaten denboraldian barrena gutxitan jokatzeko diren partidua garrantzitsu horietako bat zela, eta hori guztia Musakolako kantxan ikusi zen.

Zeingehiagoka gogorra izan zela esan dugu, baina arrasatearrak partidua osoan izan ziren aurretik. Azken minutuetan etxe-koek ez zuten ondo jokatu, eta



AITOR URIZAR

Senior mailako talde nagusiak Musakolan jokatu zuen azken norgehiagoka.

Usurbilgoek partiduari buelta emateko gai zirela ikusi zuten. Mondragoetarrek, baina, berandu baino lehenago erreakzionatu, eta gol biko aldearekin irabazi zuten.

### EZ DAGO EZER ERABAKITA

Igoera faserako talde bi bakarrik sailkatzen dira. AGR Arrasate hirugarren dago sailkapenean, baina Bernardo Balerdiren mutilak lehenengo eta bigarren pos-

tuan dauden Donibane Majestic eta Hegialde Auto taldeen kontra neurtu behar dituzte indarrak. Talde horiez gainera, arrasatearrak beste hiru norgehiagoka jokatu behar dituzte, eta gauzak pausoz pauso egitea komeni da.

AGR Arrasatek partidua interesgarrienak martxoan jokatuko ditu; edozelan ere, martxora begiratu beharrean, otsailean izango diren norgehiagokak irabazi behar dira lehenago.

## FOTOKIROLA



### Pilotari handi baten agurra

Joan den zapatuan, Santiago Etxeberria *Zurdo de Mondragón* pilotari mondragoetarrak agur esan zigun, 83 urterekin. Santiago Etxeberria Gerra Zibila amaitutakoan egin zen profesional. 40ko hamarkadan Atano IIIa, Arrien, Urzelai, edo *Txikito de Irureta* moduko pilotarien kontra neurtu zituen indarrak. Punta-puntako aurrelaria zen, gogorra, eta ezkertiarra izanda ere eskuinaz bikain ateratzen zuen. Inongo duda barik, pilotari handi batek esan digu agur.

## FOTOKIROLA



### Arrasateko gimnastek maila polita erakutsi zuten Uarkapen

Joan den zapatuan, Gipuzkoako Eskola Arteko A Mailako Txapelketa jokatu zen Uarkapen, eta Irungo, Donostiako, Tolosako, Hernaniko, Azkoitiko Zarauzko, Bergarako eta Arrasateko gimnastek hartu zuten parte. Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko 13 gimnasta izan ziren txapelketan, eta denek ere oso maila ona eman zuten. Arrasatearrek gazte mailan bakarrik eskuratu zuten lehenengo postua, baina gainerako kategorietan ere Arrasateko gimnastek oso emaitza onak eskuratu zituzten. Gazte mailan, arrasatear bi izan genituen irabazle: Idurre García eta Maria Etxebarria. Biek puntu berak eskuratu zituzten; hala, lehenengo postua konpartitu zuten. Taldeka, berriz, Arrasate Dragoi Taldea hirugarrena izan zen.

## XAKEA

### Arrasateko xakelariak mailaz igotzeko aukera galdu dute

Arrasateko San Andres Xake Taldeak Euskal Liga A mailara igotzeko aukera guztiak galdu ditu. Arrasateko taldeak beste helburu bat du orain: B mailako Euskal Ligan jarraitzea, hain zuzen. Maila horretako lehenengo hirurak mailaz igoko dira. Azkeneko lau taldeak, berriz, mailaz jaitsiko dira, eta hiru talde baino ez diote kategoriari eutsiko. Arrasatek hiru talde horietako bat izan gura du, eta horretarako, Nafarroan emaitza ona eskuratzearaz gainera, atzeratutako partidak irabaztea ere komeni da.

## ATLETISMOA

### Lander Errastik urrea eskuratu zuen Euskadiko Txapelketan, kadete mailan

Joan den asteburuan, pista estaliko Euskadiko Txapelketa izan zen jokoan, eta kadete mailan, Lander Errastik urrea eskuratu zuen pertika-jauzian. Atleta mondragoetarrak 2,80 metroko jauzia egin zuen. Ez zuen bere marka hobetu (3,10 metro), pertikaren arazoak izan zituelako. Ea 14 urteko gazte horri bere neurriko pertika jartzen dioten. Bestalde, Gipuzkoako Eskola Arteko Kiro Txapelketan Markel Blanco bigarren izan zen; lasterketa ona egin zuen, baina oraingoan lehen postua Aritz Garinendako izan zen.

## ERRUGBIA

### Elurra zela-eta Eibarren eta Arrasateren arteko norgehiagoka bertan behera geratu zen

Joan den zapatuan, Arrasateko Errugbi Taldeak igoera faseko lehenengo jardunaldia jokatu behar zuen. Zeingehiagoka Eibarren izan behar zen. Taldeak biak partidura azaldu ziren arren, norgehiagoka bertan behera geratu zen. Elurra zela-eta zelaia ez zegoen bertan ondo, eta eibartarrek berehala esan zuten ez zutela jokatu. Arrasatearrek ere gurago izan zuten partidua bertan behera uztea. Ikusi egin beharko da atzeratutako partidua hori noiz jokatzeko.



ARRASATE PRESS

Joan den denboraldian Askartzaren kontra jokatuako partidua.

SASKIBALOA

# Kencik atzerapauso galanta egin zuen joan den asteburuan

Arrasateko taldeak bi partidu jokatu zituen asteburuan, eta biak galdu zituen

XABIER URZELAI

Joan den asteburua gogorra izan zen Kenci Arrasateko jokariendako. Egubakoitzean, Iturripen, Leioako Askartzaren kontra jokatu zuten atzeratutako partidua (76-86). Zapatuan ere Iturripen jokatu zuten, Consmetal taldearen kontra (81-88).

Joan den asteburuan, arrasatearrek asko zuten jokoan. Bi norgehiagoka zituzten jokatzeko; egubakoitzean Askartzaren kontra, denboraldi hasieran atzeratutako partidua, eta zapatuan Consmetal taldearen bisita. Puntu garrantzitsuak zeuden jokoan, igoera faserako sailkatzeko beharrezkoak zirenak, baina arrasa-

tearrek ez zuten aukera hori aprobetxatu.

Egubakoitzean, liderraren kontra neurtu zituzten indarrak, eta mondragoetarrek ez zuten gaizki jokatu. Bizkaitarrek, baina, epaileen erabaki ulertezinak aldeko izan zituzten, eta etxekok ezin ezer egin. Liderraren kontra galtzea ez zen horren larria.

**ZAPATUAN, NEGARGARRI**

Egubakoitzean ondo jokatu galdu zuten. Zapatuan, berriz, gaizki jokatu galdu zuten. Zapatuko partiduko kontrarioa ez zen egubakoitzekoa modukoa. Consmetal taldea sailkapeneko azken postuetan zegoen, eta hori gutxi balitz, zapatuan ere mondragoetarrek etxean jokatzeko zuten, Iturripen. Argi dago aurreko egu-

nean partidu bat jokatu izanak eragina izan zuela, baina egoera fisikoa alde batera utzita arrasatearren jokoa ere txarra izan zen. Kenci Arrasateko mutilek defentsan ez zuten asmatu, eta erasoan ere ez ziren fin ibili. Baloiak erraz galtzen zituzten, eta konzentrazio falta sumatu zen. Horrela jokatu, zaila da partidua aurrera ateratzea (81-88).

**ZAILAGOAK ERE EGIN DIRA**

Arrasateko taldeak atzerapauso galanta egin du, eta igoera faserako sailkatzea lehen baino zailago dago orain. Dagoeneko etxeko taldearen alde ona eta alde txarra ikusi ditugu. Alde ona, baina, oso ona izan daiteke, eta horrenkin geratzen bagara, posible da taldea berriro ere zulotik ateratzea.

# Mondra bigarren postuan dago, Elgoibarren 0-1 irabazi eta gero

Mondrak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen Elgoibarren Pedrusko taldearen kontra. Norghegiagoka parekatua izan zen. Sailkapeneko laugarrena eta hirugarrena izan ziren aurrez aurre. Lehenengo zatian ez zen golik izan, eta bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu. Pedruskok etxean jokatzeko duenean kontrario gogorra dela erakutsi zuen. Mondraren gola 80. minutuan

lortu zuen Iban Garai Muxi-k. Arrasateko taldeak gol mordoa egin ditu aurtengo denboraldian, baina guztiek ez dute joan den asteburuko golaren balioa.

**JOKALARI BERRIAK**

Joan den astea ezkerro, Mondrak bi jokalar berri ditu: Angel Estévez atezaina eta Iker Lazpiur atzelaria. Angel Estévez eibartarra da eta, besteak beste, Eibarren eta

UDAn jokatu du. Iker Lazpiur, berriz, mondragoetarra da. Atxabalpen hazitako jokalaria, Real Sociedad eta Beasain taldeetan egon da. Aurrealdean, erdialdean eta atzealdean jokatzeko tokatu zaio. Argi dago bi jokalar horiek ondo baino hobeto etorriko zaizkiola Arrasateko taldeari. Hala ere, albiste guztiak ez dira onak, Ander Bereziartua Keixi min hartuta dago-eta.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

**A MULTZOA**

Saukelu Scream - Etxerat	5-4
Komando Alpagat - You Know	0-6
Al Kaeda - NS/NC	4-10
Makanaki - Iriztu taberna	1-2
Betrayer - Lasgabaster	3-7
Maldifa's - Abocajarro	0-1
Goma-2 - Rayo Aldeano	1-0

**B MULTZOA**

El Ekipo A - AT Celaya	3-13
Etxinai! - Aurrera Bolie	5-4
AC Surcos - Fuxxion	9-6
Bikain Akademia - Whiskeria	6-3
Koka Juniors - Estu Ta Larri	4-5
Billy & The... - Fraguél Gol	4-8
Saloga - Dribling.es.vg	0-1
Koka Juniors - Fuxxion	5-1

### SAILKAPENA

**A MULTZOA**

	P	J
1. You Know!	16	10
2. Iriztu Taberna	15	10
3. Saukelu Cream	14	10
4. Etxerat	12	10
5. Makanaki	12	10
6. Lasgabaster	11	10
7. Betrayer	11	10
8. Goma-2	11	10
9. Komando Alpagat	10	10
10. NS/NC	9	10
11. Abocajarro	8	10
12. Al Kaeda	5	10
13. Maldifa's	3	10
14. Rayo Aldeano	3	10

### PARTIDUAK

**OTSAILAK 8, ZAPATUA. EPAILEAK**

09:50: Estu Ta Larri - AC Surcos. K.Alpagat
11:00: K.Alpagat - Iriztu Tab. Estu Ta Larri
12:00: AT Celaya - Fuxxion. Iriztu taberna
13:00: Makanaki - Abocajarro. Fuxxion
14:00: Etxinai! - Whiskeria. Abocajarro
15:00: Bikain Akad - Fraguél Gol. Whiskeria
16:00: El Ekipo A - Aurrera Bolie. Bikain Ak
17:00: Etxerat - NS/NC. Aurrera Bolie
18:00: Koka Juniors - Dribling. Etxerat

**OTSAILAK 9, DOMEKA**

10:50: Al Kaeda - Lasgabaster. Saukelu S
12:00: Saukelu Scr - You Know. Al Kaeda
13:00: Aurrera Bol - AC Surcos. You Know!

Deskantsua: Goma-2, Betrayer, Billy & The Cowboys.

**B MULTZOA**

	P	J
1. AC Surcos	18	9
2. Dribling.es.vg	16	10
3. AT Celaya	13	10
4. Bikain Akademia	13	10
5. Koka Juniors	12	10
6. Fuxxion	12	10
7. Fraguél Gol	11	10
8. Aurrera Bolie	11	9
9. Etxinai!	9	10
10. El Ekipo A	7	10
11. Estu Ta Larri	6	10
12. Billy & The Cowboys	6	10
13. Saloga	2	10
14. Whiskeria	2	10

## ATZERATUTAKO JARDUNALDIA JOKOAN

**ZALDIBARKO ZORUA IZOZTUTA ZEGOELA-ETA, JARDUNALDIRIK EZ**

Joan den astean ez zen partidurik jokatu. Egin zuen elurrarekin eta egiten zuen hotzarekin, antolatzaileek partidu guztiak bertan behera uztea erabaki zuten. Euria egiten duenean Zaldibarko zorua labainkorra egoten da. Horri izotza gehituz gero, areto futboleko jokatzeko uste baino arrisku suagoa izan daiteke.

**KONTUZ, ALDAKETA BATZUK IZANGO DIRA-ETA**

Oraingo asteburuan, atzeratutako jardunaldia jokatu da. Zuetako batzuek gogoan izango duzue joan den astean zein ordutan jokatu behar zenuten; baina adi egon, domekako partiduetan hainbat aldaketa izango dira-eta. Bi norgehiagoka jokatu beharrean hiru partidu izango dira; Al Kaedak eta Lasgabasterrek ez dute atsedetik izango.

## KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK**

**FUTBOLA**

Mondra - Zestoa	Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Ordizia	Ohor gazteak. Domekan. 11:30. Atxabalpen.
Bergara - Arrasate	Kadeteak. Domekan. 11:00. Ipintzan.
Ikasberri - Arrasate B	2. Kadeteak Kopa. Zapatuan. 10:00. Garmendipen.
Urki - Mondra	Neskak. Zapatua. 16:00. Eibar.

**SASKIBALOA**

Antonio Erro y Eugi - Kenci Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 19:45. Azpilagañan.
Kenci Arrasate - Easo B	Junior giz. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
Kenci Arrasate - La Salle	Kadete mut. Zapatuan. 12:00. Musakolan.
Bera Bera - Kenci Arrasate	Kadete neska. Zapatuan. 16:00. Manteon.

**ESKUBALOA**

AGR Arrasate - Leitzaran	Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
--------------------------	--

**Urrietako - Arrasate**

2. seniorrak. Domekan. 12:00. Udal Kiroldegian.	
Gatz Museoa Jakion - Arrate	Gazteak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
Gatz Museoa Jakion - Urola	Kadeteak. Domekan. 11:15. Iturripen.
<b>PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)</b>	
Arrasate - Andoain	Gazte maila. Egubakoitza. 19:30. Uarkapen.
Arrasate - Uurbil	Seniorrak. Egubakoitza. 20:00. Uarkapen.

**ERRUGBIA**

Arrasate - Elorrio	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.
--------------------	--

**EMAITZAK**


<b>PILOTA (UDABERRI TXAPELKETA)</b>
Gazteak: Tolosa - Arrasate. .... 22-19
Seniorrak: Tolosa - Arrasate. .... 4-22



*Otsailaren 14a*



*Barruan duzuna  
azaleratu tatuaje  
batekin*



## **Ganesha**

Olarate 43. Tel: 943 71 18 24  
ARRASATE



**REPLAY**

**Bandoli**  
**Jeans**  
**Viste de etiqueta**

## **Laket**

Otalora z/g. Tel: 943 79 82 68. ARRASATE.  
Barrenkale 35. Irala 5. BERGARA



## **Bea**

Otalora 21. Tel: 943 79 12 05  
ARRASATE



## **San Valentin eguna**

*Claudio III.a enperadoreak Valentino kartzelaratzeko agindua eman zuen, hamabi jainkoak agurtu beharrean jainko bakarra agurtzen zuelako. Kartzela ilunean, Valentinok Julia ezagutu zuen, kartzelariaren alaba. Julia itsua zen, baina emakume ederra eta argia zen. Valentinok ehunka ipuin kontatu zizkion Juliari, eta lagun egin ziren. Errezo artean, Juliak zera esan zion Valentinori: "Zuk kontatutako istorioak neure begiz ikusi gura ditut". Hori esan bezain pronto, Julia oihuka hasi zen, ikusmena berreskuratu zuen-eta. Hurrengo egunean, Valentino hil egin zuten: otsailaren 14a zen. Baina Juliaren eta Valentinoren arteko maitasunak oraindik bizirik jarraitzen du.*

E, TXO!

GUREGAIK/ ESKIA

**LUDOTEKA IBILTARIA**

Otsaileko zapatuetan (8an, 15ean eta 22an), Ludoteka Ibiltaria egongo da Musakolako Herri Eskolan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira Musakolako ludotekan, 11:00etatik 13:30era bitartean.

**TOPAGUNEKO LOGOTIPOA**

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak Haur Saila eta Gazteen Saila irudikatuko dituen Logotipo Lehiaketa antolatu du. Bi kategoriatan banatu dute: bata, 14 eta 18 urte arteko gazteen-dako; bestea, 19 urtetik aurrerako gazteendako. Lanak zuri-beltzean edo koloreetan aurkeztu ahal dira, irudia kolorearekin zelan gelditzen den ikusteko. Teknika libre izango da. Kategoria bietan sari bera emango dute: Gorlizko aterpetxean bi lagunendako kirol asteburu bat, pentsio osoko erregimenean. Lanak aurkezteko epea martxoaren 10ean bukatuko da. AEDk eta Txatxilipurdik Pablo Urangan dituzten egoitzetan aurkeztu behar dira.

## Negu partean, gazte ugarik eskiatzera jotzen dute

IKER BARANDIARAN

Negu partean, ibarreko geroago eta gazte gehiago joaten da eskiatzera. Sasoi horretan, asteburuetan, gazteen hutsunea nabaritzen da tabernetan. Asko joaten dira eskiatzera asteburuetan.

Azken urteotan, negu partean, ibarreko geroago eta gazte gehiago joaten da eskiatzera. Neguko asteburuetan, gazteen hutsune handia nabaritzen da herriko tabernetan.

Gazte asko euren kasa joaten dira eskiatzera. Hala, gehienak Aragoi aldera joaten dira: Formigalera, Candanchura eta Astunera, besteak beste. Beste batzuek, osteran, Frantzia aldera jotzen dute: Gavarnie, Luz Ardiden edo La Mongiera, besteak beste. Eta egun pasa joateko asmoa dutenek Valdezcarayra joateko aukera ere badute, Arrasatetik irtenda, ordu eta erdian eski pistetan egon zaitzke.


Bestalde, zure kasa baino gurago baduzu taldean joatea,

*Mondragoetar gehienak Aragoira eta Frantziara joaten dira eskiatzera*

Besaide (Arrasate), Murrukixo (Aretxabaleta) eta Pol-Pol (Bergara) mendi elkarteek eskiatzera joateko txangoak antolatzen dituzte. Txango horiek lagun berriak egiteko aukera aproposa eskaintzen dizute eta, horrez gainera, egonaldia bera merkeagoa da.

**GAZTE GUTXIAGO HERRIAN**

Aurreko asteburuan, elur larregi egin zuela-eta, gazte asko herrian geratu behar izan ziren. Agian arrazoi horregatik, ez zen gazteen hutsune handirik sumatu aurreko asteburuan. Dena dela, neguko asteburu askotan erraz



Eskiatzeko zaletasun handia dago Debagoiengan.

sumatzen da herriko eta ibarreko gazteek eskiatzera joateko zaletasun handia dutela.

**ESKI PISTEN EGOERA**

Horren harira, arrasatearrok aukeratzen ditugun eski pisten egoerari gainbegiratu egin diogu Interneten. Hala, martitzenean, honako informazioa jaso

genuen: Candanchun 14 erremonte eta 20 pista zabalik zeuden eta Panticosan, 13 erremonte eta 34 pista. Astun, berriz, astebururako zabalik egongo da.

Frantzia aldean, osteran, La Mongien 28 erremonte eta 34 pista zabalik zeuden; Gavarnie eta Luz Ardiden astebururako zabalik egongo dira.

# "Gernikatik Arrasatera"

## Aurkezpen ekitaldia

Otsailaren 9an (domeka)

12:30ean Herriko Plazan

Gernika  deialdia

BOGA INSEAL HERRIAI

**PINTURA/** Felix Ayala arrasatearrak margolan erakusketa jarri du Harresi aretoan

# Felix Ayala arrasatearrak margolanak jarri ditu ikusgai Harresi aretoan

IKER BARANDIARAN

**Felix Ayala arrasatearrak margolan erakusketa jarri du gaur, egubakoitza, Harresi aretoan. Felixek olio teknikarekin margotutako 44 lan jarri ditu erakusgai, eta otsailaren 23ra arte egongo da zabalik erakusketa. Herrian erakusketa jarri duen bigarren aldia da.**

Felix Ayala arrasatearrak margolan erakusketa jarri du Harresi aretoan. Felixek bakarkako erakusketa jartzen duen bigarren aldia da, eta hainbat lan salgai jarriko ditu. Aurrekoan, erakusketa osoa zezenen margoekin osatu zuen. Eta, oraindik, askok eta askok Felix zezenen margolana nengatik gogoratzen dute.

## IRUDIA ETA MUGIMENDUA

Gaur, egubakoitza, zabalduko duen erakusketan, oster, gai askotariko margoak erakutsiko ditu: paisaiak, portuak, txakurrak, erretratuak, zezenak eta natura hilak, besteak beste.


Felixek hamar bat urte daromatza margotzen, eta olio tekni-

ka erabiltzen du. Erakusketan 44 margolan jarri ditu: horietatik, erdia 10-figura formatuan eta beste erdia tamaina txikiagoan. Felixek denetik margotzen duen arren, irudia eta mugimendua lantzea du gogokoen.

Felixek, lehenik eta behin, argazki bat ateratzen du. Eta gero, margolana egiteko argazki horretan oinarritzen da: "Argazkiak ez du egia osoa esaten. Argia desberdina da, alde ilunak oso ilunak dira, eta perspektiba desberdina da. Horregatik, argazkiari iragazkia jartzen diot eta aukeraketa egiten dut", azaldu zigun Felix Ayalak.

Felix Ayala Margo Taldeko partaide da, eta, egunero-egunero, talde horrek daukan egoitzara joaten da margotzera: "Emazteak ez dit etxean margotzen uzten, eta egoitzara joan behar izaten dut". Gustura dago egoitza berriarekin: "Hotza egiten duen arren, zabalda da eta argi handia dauka".

Ahal duen guztietan Harresi aretora edo Arrasatetik kanpora jotzen du, beste margolari batzuen erakusketak ikustera.



AITOR URIZAR

Felix Ayala arrasatearrak hamar urte daromatza margolanak egiten; olio teknika erabiltzen du eta denetik margotzen du.

**DANTZA ETA BORROKA/** Brasilgo 'Capoeira' ikastaroa Arrasatera heldu da

# Dantza eta borroka uztartzen ditu 'Capoeira'-k


I.B.

Ikastaro ikusgarri eta exotikoa antolatu dute Arrasaten. Gas-teizko eta Arrasateko lagun batzuek Brasilgo Capoeira ikasteko aukera eskaini digute. Capoeira-k dantza eta borroka uztartzen ditu, eta Europan moda dago joan den aspaldian.

## AFRIKAKO ESKLUBUEK SORTU ZUTEN

Ikastaroa eguaztenetan eta egubakoitzetan emango dute, San Viatoroko gimnasioan, 19:00etatik 21:00etara. Irakaslea Bornay brasildarra izango da. Matrikulari dagokionez, 48 euro kostatzen da, eta ikasleek eta langabeek, oster, 36 euro ordaindu behar-kotzute.

Joan den astelehenean, ikastaro-erakustaldia egin zuten, eta gura zuen edonori Capoeira zer den azaldu zioten. Capoeira Brasilgo iparraldean sortu zuten. Brasileran eraman zituzten esklabo afrikarrek euren herrietako herri kirolak -borrokak- egin gura zituzten, baina euren buruzagiek ez zieten uzten. Horregatik, borroka haiek dantzak izango balira bezala moztu zituzten. Horrela jaio zen Capoeira.



AITOR URIZAR

Capoeira-ren praktika eta ikastaroa bera oso ikusgarriak dira.

Hainbat lagunek biribil bat egiten dute eta horien erdian, biribilaren kanpoan daudenek ikus ez dezaten, bikote batek dantza eta borroka uztartzen dituen mugimendu batzuk egiten ditu, Capoeira, hain zuzen ere.

Capoeira ez da borroka. Ostiakadak eta kolpeak egon badaude, baina benetan ez dute kolperik

ematen, keinuak besterik ez da. Dantza kutsua ere badu: bikotearekin egiten da, erritmoari eutsi beharra dago, simetrikoa da eta musika du oinarri.

Ikastaroan, Brasilgo instrumentu berezi batzuk erabiliko dituzte, hala nola: birinbana, zumezko otarra, triangulua, pandeiroa eta tinbalak.

## Otsailean, eguenetako zinekluba Amaia antzokian

I.B.

Bi hilabeteko geldieurearen ondoren, Arrasateko Udaleko Kultura Sailak abian jarri du berriro eguenetako zinekluba. Betiko moduan, filmak Amaia Udal Antzokian emango dituzte, eguenetan, 21:30ean.

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak eguenetako zinekluba jarri du abian berriro. Atzo, eguena, hasi zen. Adolfo Aristarainen *Lugares Comunes* filma eman zuten, eta filmak harrera ona izan zuen. Espainiako Estatuak eta Argentinak batera egindako film horretan, erretiratu berri den bikote baten istorioa kontatzen da. Istorioan, Adolfo Aristarain zuzendariak Argentinako egoera ekonomikoak eragiten dituen zailtasunak deskribatzen ditu.

## PELIKULA ESKAINTZA ZABALA

Datorren eguenean, otsailaren 13an, beste film bat ikusteko aukera izango da. 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, *Silencio Roto* filma emango dute. Montxo Armendariz zuzendari ezagunak egindako film horretan, 36ko gerra osteko kontuak azaltzen zaizkigu: hain zuzen, diktaduraren garai ilunak eta diktaduraren aurkako erresistentzia ikusi ahal



izango ditugu film horretan.

Otsailaren 20an, Ken Loach zuzendari britainiar beteranoaren *La Cuadrilla* filma emango dute, Loachek orain arte egin duen azkenaurrekoa. Ingalaterrako tren-industriako langile batzuen zailtasunak azaltzen ditu film horretan. Loachek klaseen arteko arazoak eta zelanbaiteko drama uztartzen ditu.

Bukatzeko, otsailaren 27an, David Cronenberg ingelesaren *Spider* filma emango dute. David Cronenberg filmek egoera zailak eta basatiak erakusten dituzte, eta honako *Spider* ez da salbuespena. Filmean, hilketak eta tentsioa uztartzen dira.

## BEHEKODENDATIK

## Marga Zulaika

MARGA JANTZIAK DENDAKUE

XABIER URZELAI

Oin dala urte bi eta erdi zabaldu euen Margak Mondragueko dendie. Ordurako Bergaran euen dendiek bederatzit urte zittuen, eta negoziue zabalketie pentsau euen. Gustora dago Mondraguen, eta penie emuten dutzo lehenago etorri ez izenak. Dendak zabaldu aurretik, baiñe, erropa egillie zan; hortan, beti ibilli da moda kontuetan.

## Amets bat?

Neure ametsa 60 urtekin jubiletie zan, eta edade horrekin Mondraguen zabaldu neuen dendie; hortan... Ametsak aldatu egitten die.

## Eta amets txar bat?

Alabiek auto istripue eukie euenien. Zorionez, oso ondo erreku-perau da.

## Egin dozun azken biajie?

Lan haundixe dauket, eta biaje motzak egitten dittut.

## Txartel horixe, zeñie?

Mondragueko munizipalei; izen be, zamalanak egitteko ez daue bat be erretxasunik emuten, eta segiduen jarten daue multie.

## Eta gorrixie?

Haziendari.

## Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Gaztetan Cantinflasen pelikulak gustetan jaten / Luise L. Hay gustetan jat / Nana Mouskouri.

## Drogak legalizauko zittukie?

Ez.

## Eta prostituziñue?

Hori be ez.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek die polittak, bakotxa bere neurrixen.

## Etxeko zapatillak ala zapatak?

Astien behin jarten dittut zapatillak, eta oso gustora, gaiñera.

## Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana. Jentie oso jatorra da, eta oso gustora nago. Pena bat dauket, lehenago etorri ez izena.

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Komertziuei gehixago lagun-



X.U.

*“Mondragueko alkate izengo banitz, komertzio txikiñei gehixago lagunduko neuskie”*

duko neuskie.

**Eta lehendakari izengo bazitze?**

Euskal Herriko alderdixek batzen ahaleginduko nitzake.

**Bizio bat?**

Gozozalie naz.

**Ezagutu dozun pertsona interesante bat?**

Asko ezagutu dittut.

**Eta ezagutu nahiko zeunkeena?**

Bereziki, iñor be ez.

**Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?**

Bertin Osbornekin. (Barriek)

**Telebisiñoko programa bat?**

Goenkale ikusten dot.

**Eta irratikue?**

*“Eguraldi honekin neguko erropa asko saldu dogu. Ixe-ixe txamarra barik geratu gare”*

Euskadi Irratia entzuten dot.

**Mondraguen eta Bergaran dauketzu dendie. Nun saltzen dozue gehixago?**

Mondraguen, duda barik.

**Merkealdiko egunik fuertienak pasau die?**

Ez egizu pentsau; azkeneko egunak be gogorak izeten die.

**Holako eguraldixakin neguko erropak saltzen jarraitu biherko dozue...**

Bai, baiñe negu giro hau berandu etorri da. Urrixen edo azaru en etorri izen balitz...

**Holako eguraldixari aurre egitteko, bufandie onena?**

Lehenengo, oiñetako on batzuk, eta gero, txamarra on bat.

## NIREBIDAIAHURA / Aitzol Lopez de Munain


Mexikora / 2002ko urritik abendura arte

Aitzolek eta Ikerrek aste bi egin zituzten brigadistekin. Gogorra baina, aldi berean, polita izan zen egonaldi hura. Hala, bidaiarekin jarraitzeko ordua iritsi zen, eta Lacandonako oiñetik kostalderako bidea hartu zuten. Boca del Cielora iritsi ziren; hura hondartza baino ez da, hondartza ikusgarria. Inor ere ez zegoen han, baina zein txikia den mundua, han ere euskaldunekin elkartu behar. Dor-tokak zelan jaiotzen diren bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten, eta dortokak itsasoratzeke lanean ibili ziren.

Boca del Cielon egun batzuk egin, eta Mexikotik Guatemalara joan ziren. Aitzolek izan zuen lehenengo inpresioa izan zen Guatemalan lur guztiak zeudela landatuta. Guatemalako jendearekin hartu-emana zailagoa izan zen, hangoek *gringo* moduan hartzen zituzten-eta: “Guatemalan dolarrak baino ez ginen hangoendako, hankadun dolarrak. Sentsazio hori izan nuen, behintzat”. Atitlan laku ikusgarrian egon ziren, eta Quetzaltenangoko hotel baten 2 eurogatik egin zuten lo lagun biek.

Guatemalan egun batzuk egin ondoren, Aitzol eta Iker muga gurutzatu eta Hondurasera pasatu ziren. Copan-en izan ziren, Guatemalatik gertu, eta antzinako hondarrak bisitatzeko paradatxoia ere egin zuten. Copanen lau egun egin zituzten, eta hangoekin oso harreman ona izan zuten. Guatemalara itzultzerakoan, Belizera bidaiara gaixorik egin zuen Aitzolek, sukarrarekin, eta hainbat egun ohean egin zituen; euli baten ziztadaren ondorioz izan zela uste du. Belize, Peñaflores, Tical... Leku batzuk deskantsatzeko ziren aproposak; beste leku batzuetan, ordea, inguruak bisitatu eta turismo apur bat egiteko aprobetxatzen zuten. Mexikora itzuli, eta Palenquera joan ziren bidaiako protagonista biak. Lagunekin eta familiakoekin gogoratuta hainbat erosketa egin zituzten han. Azkeneko egunak hondartzan eman zituzten, Casitas-en, eta azkeneko minutua ere aprobetxatu zuten. Santamasetarako etxean ziren.

XABIER URZELAI



Aitzol eta bidean ezagututako lagun euskaldun bat, paseatzen.

**LORAMENDI  
KIROLAK**

**BI DENDA ARRASATEN**

**0/50**



ZAHARREN ETXETIK

## Abaroako taberna ustiatzeko lehiaketa aterako dute

IKER BARANDIARAN

Udalak Abaroako taberna ustiatzeko lehiaketa aterako du laister. Azken 12 urteotan taberna hori ustiatu duen Esteban Aranak ere lehiaketan parte hartzeko aukera izango du.

Lehiaketa irabazten duenak, taberna zerbitzua ustiatzeaz gain, tabernaren zerbitzurako diren instalazioak eta gauzak garbitu beharko ditu, eta erretiratuen etxeko atezaintza zerbitzua eskainiko du; komunak ere garbitu beharko ditu.



AITOR URIZAR

Abaroako taberna zabalik egoten da, egunero.

### URTEBETEKO EPEA, GUTXIENEZ

Ustiatzearen epea urtebetekoa izango da behin betiko adjudikaziotik hasita, eta bi aldeek adosten badute, beste urtebete luzatu ahal izango da, gehienez, bost urte arte. Taberna hartuko duenak ez dio ordainduko Udalarari ustiatzetik sortutako kanonik.

Interesatua behartuta dago erretiratuen etxean lan egitera; jendearendako zabalik eduki

behar du eta gertu egon behar du erretiratuen etxeak dituen zerbitzu guztiak emateko, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 21:30era; zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, ostera, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara. Taberna zerbitzua urteko egun guztietan

egongo da zabalik. Edozelan ere, tabernariak eskubidea izango du urtean 20 egunetan taberna ixteko.

Horren harira, lan hori hartu gura duenak euskaraz berba egiteko gai dela erakutsi beharko du. Puntu horretan desadostasuna erakutsi zuen Arrasateko PSE-EE taldeak osoko bilkuran.

## Erretiratuen pentsioak ez dira gobernuak agindu zuen beste igo

I.B.

Joan den aspaldian, erretiratuen pentsioen gaineko iragarkiak ikusten gabiltza telebistan. Iragarki horiek *Esana eta Egina* leloa daramate; hau da, erretiratuen pentsioak nabarmen igo direla eta, horren ondorioz, erretiratuak oso pozik daudela.

Guk, hori argitu guran, Arrasateko erretiratuen elkarteetara jo dugu, eta, erretiratuek kontatu digutenez, ez daude pozik. Iragarritako pentsioen usteko igoera horiek ez ei dira egia osoa.

**IRAGARRITAKO BAINO IGOERA TXIKIAGOA**  
Erretiratuen elkarteetako arduradunekin 2001etik 2003ra erretiratuen eta alargunen pentsioek

izan duten bilakaera aztertu dugu, eta zenbakiak oso argigarriak dira.

Gutxieneko pentsioak aztertu ditugu, erretiratuen usteko bizimodu maila hori hobeto irudikatzen.

Bizikidea ardurapean duen erretiratu bati (gutxienez 65 urte dituen), 2001ean, hileko 73.550 pezeta (442 euro) ematen zizkioten eta 2003an, berriz, hileko 471,68 euro (78.481 pezeta) ematen dizkiote. Datu horiek erakusten digute 2001etik 2003ra bitartean erretiratu horien pentsioa %6,7 bakarrik igo dutela. Horrek ez du esan gura erretiratu guztiek horrelako diru kopurua jasoko dutenik. Diru kopuru txikien jasotzen dutenak aukeratu ditugu. Beste erretiratu batzuek pentsio altua

goa izango dute. Guk adierazgarrienak aukeratu ditugu.

Alargunen egoera ere ez da ona; pentsio baxua duten alargunak aztertu ditugu.

60 eta 64 urte bitarteko alargunek, 2001ean, hileko 54.905 pezeta (330 euro) jasotzen zituzten eta 2003an, berriz, 362,54 euro jasotzen dituzte (60.321 pezeta). Datu horiek erakusten digute 2001etik 2003ra bitartean alargun horien pentsioa %9,86 igo dela.

65 urte edo gehiago dituzten alargunek, 2001ean, hileko 62.455 pezeta (365 euro) jasotzen zituzten eta 2003an, berriz, hileko 400,5 euro (66.644 pezeta) jasotzen dituzte. Datu horien arabera, 2001etik 2003ra bitartean alargun horien pentsioak %9,62 igo dira. Hortaz, hortxe daude datuak!

## LABUR

### Abaroa zaharren elkarteak astebeteko txangoa antolatu du, maiatzerako, Castellora

Abaroa zaharren elkarteak txango polita antolatu du. Maiatzaren 11tik 18ra, Oropesa del Marrera eta Castello de la Planara joango dira, Marina D'Or hotelera. Izena emateko epea otsailaren 3an zabaldu eta martxoaren 15ean itxiko dute. 215 euro ordaindu beharko dituzte joan gura dutenek. Abaroako bazkideek lehentasuna izango dute, baina bazkide ez direnek ere eman dezakete izena. Ez da lekurik gordeko. Izena eman, lehenik eta behin.

### 1958ko kintoek ospakizuna antolatu dute martxoaren 15erako, urtero lege

Arrasateko 1958ko kintoek -1937an jaiotakoak- martxoaren 15ean euren egun handia ospatuko dute. 12:30ean, San Juan Bautista elizan meza izango dute; horren ondoren, txikiteoa egingo dute; eta 14:30ean, bazkaria izango dute Musakola Hostalean. Interesatuek martxoaren 9a aurretik Jose Riviereri deitu beharko diote (943 79 10 57), eta 15 euro ordaindu beharko dituzte.



### Dantza ikastaro arrakastatsua Abaroan

Abaroa elkartearen dantza ikastaro arrakastatsua antolatzen dabilta. Joan den martitzenean, giro onean harrapatu genituen ikastaroko partaideak, Natalio Maiztegi irakaslearen gidaritzapean, merengea dantzatzeko.

Hiru bat urte daramatzate Abaroan dantza ikastaroak ematen. Eguaztenero batzen dira, 10:30etik 11:30era, eta Karibeko dantzak, salsa, tangoa, pasodobleak, *bachata*, eta bestelakoak ikasten dituzte. Aurten, 29 ikasle dabilta: horietatik, 28 emakume eta gizon bakarra. //B.



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**ad** **Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**OSORIK**  
**PUB**

Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

**Aretz**  
Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABAleta



ARAMAIO  
**Cristina Unzueta**  
Otsailaren 3an, 79 urte.  
Zorionak! Seme-alabak,  
ilobak eta Claudia.



ARRASATE  
**Xabier Etxebarria**  
Otsailaren 8an, 13 urte.  
Zorionak! Iker, aita eta  
ama.



ARRASATE  
**Judit Urizarren**  
Otsailaren 11n, zorionak  
amatxo! Nerea eta Aitor.



ARRASATE  
**Jose Antonio Moreno**  
Otsailaren 3an, urtebete-  
tzea. Zorionak, lagunen  
partetik.



ARRASATE  
**Ricardo Pérez**  
Otsailaren 15ean, urtebe-  
tzea. Zorionak, lagunen  
partetik.



ARRASATE  
**Asier Aranburuzabala**  
Otsailaren 18an, urtebe-  
tzea. Zorionak, lagunen  
partetik.



ARAMAIO  
**Felix Ibabe**  
Otsailaren 9an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO  
**Rakel Pérez**  
Otsailaren 8an, 19 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Olatz Belastegi Axpe**  
Otsailaren 2an, 12 urte.  
Zorionak! *Shin Chan*-en  
eta etxekoekin partetik.



ARRASATE  
**Mario Jurado**  
Otsailaren 11an, 6 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta  
Alba.




LOGROÑO  
**Ivan Gómez**  
Otsailaren 9an, 7 urte.  
Zorionak! Familiakoekin par-  
tetik.



ARRASATE  
**Xabier Primoy**  
Otsailaren 10ean, 27 urte.  
Zorionak! Gurasoen par-  
tetik.



ARRASATE  
**Alazne Gartzia**  
Otsailaren 11n, 7 urte.  
Zorionak! Etxekoekin parte-  
tik.



ARRASATE  
**Gaizka Zabaleta**  
Otsailaren 10ean, 22 urte.  
Zorionak, *txiki!* Lei, Saio eta  
Nago.



ARRASATE  
**Marcos Cordovilla**  
Otsailaren 10ean, 5 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta  
anaiak.



ARRASATE  
**Ana Altuna**  
Otsailaren 15ean, urtebe-  
tzea. Zorionak! Senarra,  
Alba eta Uxue.



ARRASATE  
**Izaskun Ezpeleta**  
Otsailaren 4an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Haritz, Uxue,  
Amets, Ibai eta familiakoak.



ARRASATE  
**Naia Ijurre**  
Otsailaren 8an, 2 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta  
Izar.



ARRASATE  
**Xabi Urrutia**  
Otsailaren 7an, 32 urte.  
Zorionak, mutiko! Zure  
lagun gazteak.



ARRASATE  
**Igor Fernández**  
Otsailaren 7an, 29 urte.  
Zorionak! Blanca.



ARRASATE  
**Naiara Canelo**  
Otsailaren 9an, 4 urte.  
Zorionak! Amaiaren eta  
etxekoekin partetik.



ARRASATE  
**Oier Arzamendi**  
Otsailaren 5ean, 27 urte.  
Zorionak! Peña de la Gre-  
ña.



ARRASATE  
**Xabi Abasolo**  
Otsailaren 13an, "18" urte.  
Zorionak! Familiakoekin par-  
tetik.



ARRASATE  
**Nerea Kerejeta**  
Otsailaren 9an, 25 urte.  
Zorionak, *Kere-Kere!* Lagu-  
nak.



ARRASATE  
**Juan Mari Garai**  
Otsailaren 8an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Etxekoak.

## Adi!

Argazkiak  
emateko lekua:

**Arrasate:**

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu haren argazkia\*  
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

**arrasate**  
**aretxabaleta**  
INSTITUTUA

Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 83 00 / 610 27 63 54  
Posta-e: iarrasate@euskalnet.net

Aniztasunarekin denok irabazten dugu

## MATRIKULIE EGITTEKO EPIE

Otsailaren 3tik 15era  
Ordutegixe:  
09:00retatik 17:00xetara.

**Informazio batzarra**

Noix: otsailaren 11n, martitzenien, 18:30ien.

Nun: Arrasateko Institutuen, beheko edificiuen. Elkano 24 (kiroldegi onduen).

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Elurra zela-eta, arrasatearrek joan den asteko zein egunetan izan zuten lanera joateko zailtasunen bat edo beste?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Ram esnea**  
osoa/erdigaingabetua/gaingabetua  
litroko brika

**0,62€** 103pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MARIA LUISA MARTINEZ**endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Luisa!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Goikobalu.**

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko Udaletxea eraikitzean izan ziren arazoak

JON ANDER RAMOS

Arrasateko Udaletxea eraikin sendoa da, harlanduzko harriarekin egindakoa. Udaletxe gutxi eskaintzen dute horrelako itxura ederra, barroko estilokoa. Lehengo udaletxea Iturriotz kalean zegoen. Eta gaur egungo udaletxea noiz eraiki zuten jakiteko, zehatz-mehatz, 247 urte egin behar dugu atzera: 1756ra, alegia.

Arrasateko Udaletxea Martin Carrera arkitektoak egin zuen. Harria, kalizaren kolorekoa, Galarra harrobitik hartu zuten; eta ezkutua eta moldurak egiteko erabili zuten harria, berriz, Aguraindik. Bestalde, eraikineko balkoia eta burdineria Elorrioko Rafael Amezolak egin zituen. Eraikinaren barruan gauza azpimarragarrietako bat pieza bakar baten eginda dauden eskaierak dira.


Horrez gainera, batzar aretoko kasetoi ikusgarria, aretoa inguratzen duten aulkiak, eta presidentearen nitxoia ere aipatzeko moduko elementuak dira. Udaletxearen aurreko

*“Udaletxea eraikitzeko diru asko behar izan zen; ez ziren garai oparoak izan”*

*“Udaletxea ordaintzeko ardoaren gaineko beste zerga bat atera zuten”*

aldean dagoen ezkutu ikusgarriaren diseinua 1760an onartu zuten. Ezkutuaren diseinua arkitektoaren semeak egin zuen, Manuel Martin Carrerak, hain zuzen ere. Udaletxe-ko obrak 1766an amaitu zituzten, eta urte hartan bertan inauguratu zuten.

Udaletxea eraikitzeko diru asko behar izan zen, eta Udaleko aurrekontuek ondo



MONDRAGON EL AYUNTAMIENTO

Arrasateko armaria informazio iturri oparoa da.

baino hobeto igarri zuten hori. Ez ziren garai oparoak izan, eta arrasatearrak larri ibili ziren horrelako gastu bati aurre egiterako orduan. Kuriositate moduan, Udaleko

diru-kutxaren egoera apur bat hobetzeko, zerga berezi bat ezarri zuten. Ardo pitxer bakoitzarengatik lau marabedi gehiago ordaindu behar ziren, eta neurri horrek uste baino

emaitza hobeak eman zituen, ardoaren kontura, diru asko batu ahal izan zuten-eta. Hala, zurruteroen laguntzarekin ordaindu ahal izan zuten eraikin garrantzitsu hori.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko otsailaren 7a / 52. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Aho batez onartu du udalbatzarrak 2003ko aurrekontua: 1.740.609,83 euro

UBANE MADERA

Aho batez onartu zuen udalbatzarrak 2003rako udal aurrekontua. Iazkoa baino %24 txikiagoa izango da. Hain zuzen ere, 1.740.609,83 euroko aurrekontua izango du aurten Udalak, eta 156.695,22 euroko mailegua eskatu beharko du, gastuei aurre egin ahal izateko.

Jaitsiera nabarmena izango du aurtengo udal aurrekontuak; %24ko jaitsiera, hain justu ere. Inaki Nafarrate alkateak azal dutakoaren arabera, azken zortzi urteotan gastu ugari izan ditu Udalak; batez ere, auzoetako lanak egiteko: saneamendua eta bestelako azpiegiturak. Hain zuzen ere, hori izan da, alkatearen esanetan, azken urteotako Udalaren erronkarik handiena. Eta horri, kultura etxe berria egiteko gastua gehitu behar zaio.

Horrela, bada, guztiari aurre egiteko, mailegua eskatu behar izan zuen Udalak, eta oraindik ere hura ordaintzen dabil. Horren ondorioz, diru gutxiago du urteroko beharrei aurre egiteko.

Kontuak kontu, onartu dute aurtengo aurrekontua; aho batez onartu zuen udalbatzarrak joan den eguazteneko (hilak 29) batzarraren. Horren harira, alkateak esan zuen oso pozik zegoela erabateko adostasun horrekin, eta eskerrak eman zizkien oposizioako kideei.

### UDALETXEAREN BERRITZE LANAK

Betiko moduan, aurten ere Hirigintza Sailak izango du aurrekonturik handiena: 784.221 euro. Eta sail horretako partidarik handiena udaletxea berritzeko erabiliko dute. Berrikuntza proiektua, esate baterako, 266.584 euro kostatuko da.

Beste diru partida handi bat, berriz, Arexolan azpiegiturak ipintzeko erabiliko dute; 155.473 euro gastatuko dituzte proiektuan. Eta Ibarako lan hidrografikoak egiteko 164.284 euro erabiliko ditu Hirigintza Sailak. Aipatzekoa da, era berean, Matxain kalea zabaltzeko 48.000 euro zehaztu dituztela.



Udaletxea berrituko dute aurten; lan horretarako izango da diru partidarik handiena.

*Iazko udal aurrekontua baino %24 txikiagoa izango da aurtengo udal aurrekontua*

*Hirigintzako aurrekontutik, udaletxea berritzeko erabiliko dute diru kopururik handiena*

*Kultura batzordeak izango du igoerarik handiena, hain zuzen, kultura etxea kudeatzeko*

### A MULTZOA

Hirigintza .....	784.221€	Zatirik handiena udaletxea berritzeko.
Ogasuna .....	567.681,21€	Zatirik handiena administrazio langileen soldatendako.
Kultura .....	148.500€	Zatirik handiena kultura etxea kudeatzeko.
Zerbitzuak .....	122.111,70€	Zatirik handiena zaborra batzeko.
Mendia eta Ingurumena .....	60.095,92€	Zatirik handiena Arangio garbitzeko.
Euskara .....	58.000€	Zatirik handiena euskara zerbitzua eratzeke.

### OGASUNA ETA KULTURA

Bestalde, Ogasun eta Kultura batzordeek dute 2003ko aurrekontuko hurrengo partidarik handienak.

Ogasun batzordeari dagokionez, denera, 657.681,21 euroko aurrekontua dauka.

Batzorde horretako diru kopururik handiena administrazioko soldatak ordaintzeko erabiliko dute: 86.202,65 euro, hain zuzen. Eta 60.711,65 euro berriz, udaletxea garbitzeko izango dira.

Kultura batzordeari dagokionez, 148.500 euroko aurrekontua zehaztu dute batzorde horren beharrei aurre egiteko.

Igoerarik handiena izan duen batzordeetako bat da horixe. Kultura etxe berria dela-eta gertatu da hori. Izan ere, iaz geroztik kultura etxearen kudeaketarako gastuak ere bere gain hartu ditu Udalak. Hain zuzen ere, aurten, 30.000 euro behar ditu horretarako. Bestalde, herriko jaietarako 18.000 euro gorde dituzte Kultura batzordean. Eta aipatzekoa da, era berean, Aramaioko auzoetako jaiendako beste 11.250 euro erabiliko dituztela.

### GAINONTZEKOAK

Gainerako batzordeei begiratuz gero, Zerbitzu batzordeak 122.111,70 euroko aurrekontua izango du. Hain zuzen, herriko zabor bilketarendako erabiliko dute diru kopuru horretako partidarik handiena: 37.030,98 euro. Eta kultura etxea garbitzeko 19.173 euro erabiliko dituzte.

Mendi eta Ingurumen batzordea dator ondoren; 60.095,92 euroko aurrekontua dauka batzorde horrek. Diru horretatik, Arangio garbitzeko izango da kopururik handiena: 18.643,40 euro, hain justu ere. Anzuotegiko landak erabiltzeko, berriz, 6.436,84 euro erabiliko dituzte.

Eta, bukatzeko, Euskara eta Hezkuntza batzordeak hartuko du diru gutxien: 58.000 euro. Horatik, euskara zerbitzua eratzeke erabiliko dute kopururik handiena: 15.100 euro; era berean, eskola garraiorako 9.000 euro erabiliko dituzte eta UEMArako eta ELEJIRArako, 6.000 euro.

## TELEFONOJAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak) .....	945 44 53 40
Botika .....	945 44 50 03
Udaletxea .....	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) .....	945 45 52 52
San Martin Eskola .....	945 44 50 04
Taxia eta autobusak .....	945 44 50 33
Udal kiroldegia .....	945 44 53 35
Postetxea .....	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea .....	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) .....	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### ALKATEAREN OHARRA

Joan den asteko argindarraren mozketaren dela-eta, honako oharra bidali du alkateak: "Aramaiio urtarriaren 30eko 20:20an argindar barik geratu zen, hain zuzen ere, urtarriaren 31ko 17:00ak arte. Aramaiioko herritar guztiei jakinarazi nahi diet Aramaiioko Udala ez zela argindarraren mozketaren arduraduna izan; Iberdrolak izandako arazo batengatik gertatu zen mozketaren".

### ZINEMA

*E.T. el extraterrestre* filma emango dute oraingo astean.

### ARETO FUTBOLA

Eguraldi eskasaren ondorioz, aurreko asteburuan ez zuten partidurik jokatu Aramaiioko neska-mutikoek. Oraingo zapatuan, berriz, partidu guztiak etxean jokatu dituzte: gazte mailakoek Izarra Gorri taldea izango dute aurrez aurre, 10:00etan; kadete mailako mutilek, berriz, La Milagrosa taldearen kontra jokatu dute, 11:00etan; eta 12:00etan, nesken txanda izango da. Virgen Niña taldea izango dute aurkari.

## KULTURA

### Santa Ageda eskean irten ziren martitzenean gaztetxoak

Urteroko ohiturari kale egin barik, martitzen goizean, auzoz auzo eta baserri baserri ibili ziren San Martin Eskolako ikasleak. Denera, 110 ume eta 17 irakasle ibili ziren. Baserritar jantzia eta makila eskuan zutela, Ageda zaindariaren izenean ibili ziren kantuan eta eskean. Horrela, goizean, bederatzietan, Ibaratik irten ziren, eta Aramaioko auzo guztiak bisitatu zituzten; Oleta izan ezik, hara Otxandioko Ikastolakoak joaten dira-eta.

Batu dutenarekin, euren beharretariko batzuk aseko dituzte San Martin Eskolako gaztetxoek. Hain zuzen ere, irteerara edo barnetegietara joaten direnean gastu batzuk ordaintzen laguntzeko erabiliko dute batutako diru hori. Janaria batzen badute, berriz, euren jangelarako gordetzen dute edo janari hori ere saldu egiten dute, diru gehiago lortzeko.



## GERTAERAK

### Argindarra etenda eta luiziak berriro be, eguraldi eskasak eraginda

Joan den astean egin zuen eguraldi eskasak arazoak eragin zituen. Eguenean hasi eta egubakoitzera arte, argindarra etenda egon zen. Udaleko Zerbitzu Teknikoek esandakoaren arabera, Gellaon zuhaitz bat jausi zela-eta hark eragin zuen etena. Iberdrolaren esku geratu zen konpontzea. Horrez gain, Uri barrin pinu bat bota zuen haizeak, eta inguruko lau baserri argi barik geratu ziren; edozelan ere, segituan konpondu zuten aberia. Bestalde, Zabolatik Untzillarako bidean luiziak izan dira berriro ere. Lehenago izandako leku berean izan dira eta lehen beste lur edo gehiago jausi da bidera. Horren ondorioz, errepidea moztuta dago.

Bukatzeko, telebistarekin lotutako honako oharra eman beharra dugu: telebistaren seinalea Gureiatik hartzen dutenek ezin izango dute TVE1 katea ikusi, harik eta teknikariak etorri arte. Berez, oraingo astean ziren hori konpontzeko.

## BOTEPRONTOAN/ Laura Díaz · Artxibozaina

### "Nik neuk enbaxadore lanak betetzen ditut Aramaiiorekin; jende guztiari esaten diot etortzeko"

Laura Díaz ekarri dugu oraingo astean elkarrizketarendako gordetzen dugun tar- te honetara. Lau'ra gasteiztarra da eta bizi ere han bizi da. Zuiako Koadrilarendako lanean ibili da azken lau hilabeteotan. Hain zuzen, artxibozain lanak egin ditu; txandaka ibili da koadrila- ko herri guztietan (Orkabustai- zen, Zuian, Legutianon, Zigoitian eta Aramaion). Geografia eta His- toria ikasketak egin zituen, bai- na sekula ez du arkeologo lanik egin. Artxibozaintzan masterra egin zuen, eta hortik bideratu du bere bizimodua:

#### Badirudi hemen egin beharrekoak ia bukatu zaizkizula...

Bai. Bihar (martitzena, hilak 4) bukatzen zait hemengo lana. Lau hilabeterako etorri nintzen, amatasun baja bat betetze- ra. Eta bukatu da.

#### Eta zer pentsatu zaizu?

Interesgarria izan da. Lanaz gainera, inguru hau guzti hau ezagutzeko aukera eman dit. Gainera, modu horretan udal txikietako lanaren berri ere izan dut. Izan ere, lehenago oso udal handi baten egin nuen lan, Edinburgon, baina desberdina da.

Edinburgo aipatu duzu. Handik etorri zinen hona?



"Jendearekin izandako harremana igarriko dut faltan. Jende asko ezagutu dut"

Hiru hilabeterako joan nintzen hara, ingelesagatik, baina hiriarekin maitemindu egin nintzen eta pare bat urtez geratu nintzen. Abuztuaren amaieran etorri nintzen hona. Etorri eta berehala hasi nintzen lanean; izan ere, handik, Edinburgotik lortu nuen lana. Dena dela, hona itzultzeko asmoa nuen lehenagotik; pare bat urte eman nituen han, eta etortzeko gogoia nuen. Hori bai, etorri eta berehala hasi nintzen lanean.

#### Gogorra, ezta?

Ez dut astirik izan aldaketa barneratzeko: herriz aldatu, kulturaz, hizkuntzaz aldatu... Hortaz, orain, langabezian geratzen naizenean lasaituko naizela uste dut.

#### Berriro joango zara?

Ez, nagusiegia naiz. (Barreak). Egia esan, esperientzia moduan

oso aberasgarria izan da, baina hau faltan igartzen nuen.

#### Hortaz, orain zer?

Baditut ideia edo proiektu batzuk buruan; zerbait egin gura dut nire kontura.

#### Hau faltan igarriko duzu?

Bai. Pena ematen dit, baina nire proiektuak ere badituda- nez, ilusioa daukat. Bereziki, jendearekin izan dudana harre- mana igarriko dut faltan. Jende asko ezagutu dut, bost udaletan ibili naiz-eta lanean. Hasieran gogorra izan zen horrenbeste jendekin ibiltzea, baina behin ohitu eta gero... faltan igarriko dut, bai.

#### Joan aurretik baduzu zerbait esateko?

Aramaioren gainean esan beharra dut oso-oso gogoko dudala. Banekien *Suitza txikia* esaten diotela, eta orain ikusi dut horrela dela. Nik neuk enbaxadore lanak betetzen ditut Aramaiiorekin; jende guztiari esaten diot etortzeko, oso polita dela-eta. Horrelakoak ikustean, kanpoko ezerk ez dit inbidiarik ematen. Eta, jakina, bueltatuko naiz hona, besterik ez bada Anbotora eta Orixolera. Gainera, oraindik ere Aramai- o auzo batzuk ikusteko geratu zaizkit. Hortaz, duda barik, itzuliko naiz.

"Aramaiio eta holako lekuak ikusten ditudanean, kanpoko ezerk ez dit inbidiarik ematen"

## ERRETRATUZAHARRA

Santa  
Agedaren  
omenez

**S**anta Ageda eguna pasatu dela eta, ezin bestela izan, eta zaindariaren omenez irtetzen diren kantariak ekarri ditugu tarte honetara. 1987ko argazkia da. Eta, ikusten duzuen moduan, talde polita irten zen kantuan eta oles egiten. Goizean, bi taldetan banatu ziren; batzuk Bedoñara joan ziren eta beste batzuk, Musakolara. Gero, Leintz elkartean batu eta han bazkaldu zuten, ohiturari jarraituz, babarrun gorri goxo-goxoak. Arratsaldean ere beste bi taldetan banatu ziren: batzuk herriko auzoetara joan ziren eta beste batzuk kalean ibili ziren. Eta, bukatzeko, Udalpen elkartu ziren guztiak, eta berakatz zopa eta bakailoa jan zuten.

Honakoak agertzen dira argazkian: ezkerretik hasita, astoari eusten dabilena Bixente Juldain da, eta astoa, *Salaberri*. Eta belauniko daudenak honakoak dira: Barrutia, Luis Maidagan, Ugarte, Aranburu, Perea eta Garai. Hurrengo ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: Juan Maria Oregi, Agustin Ibarluzea *Txispas*, Txema Uribesalgo,



*Txato* (bizarduna), haren atzekoa Garro da, eta ondorengoa Talledo (bibotedun beste gizonezkoa), Bidaburu, Anton Errarte, Pagoaga, Agirre, Nafarrate, Julito Iriondo eta Ezkurra *Galarra*. Hurrengo ilaran, ezkerretik eskumara: Agirre, Del Valle, Zabala, Larrañaga, Oruna, ezezaguna, ezezaguna, Eugenio

Etxebarria (aurreko aldean ikusten den txikitxoa), Zabalo (atzean, aurpegia bakarririk ikusten zaiona), Ander Etxebarria (soinua eskuetan), Menika, Jesus Maria Okina (bizarduna), Jose Ramon Bolinaga *Txori*, Juan Egidazu *Kurri*, ezezaguna, Piedehierro eta Iñaki Mangana. Eta, atzean, ezkerretik


hasita: J.J. Eriz, Dolara, Kepa, ezezaguna, Javier Zubizarreta, Eugenio Gallastegi, Dolara, Agirre *Txito*, Ismael Errasti eta Iriarte.

**Argazkia:** Anton Errarte  
**Informazioa:** Anton Errarte  
**Urtea:** 1987

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garagartza,  
orain dela  
90 urte

**B**i argazki horien artean 88 urteko aldea dago. Argazki zaharraren beheko aldean gaztetxo bat azaltzen da. Badirudi jolasean dabilela, baina ez dakigu gazteak esku artean zer duen. Kometa bat dela esatea asko esatea da; hori zuen esku utziko dugu. Argazkia nondik aterata dagoen jakiteko eliza da erreferentzia onena. Erreferentzia onena eta bakarra.



**1915** Garai hartan, Garagartza auzoa askoz ere txikiagoa zen. Elizak eta hainbat baserrik osatzen zuten auzoa.



**2003** Garagartzako eliza San Migeli eskainitakoa da. Kanpandorra barrokozat jo daiteke, eta barruan erromaniko garaiko bataio-pontea du.

**EGUZKIGRAF** →  
inprimategia

Industrialdea 1-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABAETA

## TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

BITTORI  
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

# 2003-2004



Mesedeetako Andra Maria



IKASTETXEA

943 79 27 73

Haur Hezkuntza

0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza

2-6 urte



eredua **D**



DBH

## MARTXOAREN 8KO KARTEL LEHIAKETA 2003

2003ko martxoaren 8ko leloa:

“Martxoak 8, gure  
eskubidea delako!!!”

Edozeinek har dezake parte.  
Neurria, gehienez ere, 50 x 70 cm.  
Teknika librea izango da.  
Kartelak testu hau izan beharko du  
derrigorrez: Martxoak 8, gure  
eskubidea delako!!!  
Irabazleari 750 euro emango dizkiote.  
Kartela 2003ko otsailaren 18a baino  
lehen bidali behar dira Udaletxeko  
Emakume Sailera.

Arrasateko Udaleko Emakume Saila  
Tel.: 943 79 09 00  
943 79 41 39

[www.arrasate-mondragon.net](http://www.arrasate-mondragon.net)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Emakume Salla ■

# GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

